

ttipi ttapa

420



Sarako Gaztetxeak 15. urteko kontzertua 04

Gaztetxearen 15. urteurrena ospatzeko kontzertu handia izanen dute Saran Ortzirai Sainduan, Clawfinger taldea buru dela. Gaztetxearen historia ezagutu dugu.



Manttale Mendi Lasterketa taldea 40

Apirilaren 23an egingen den Berako II. Mendi Maratoi Erdiaren aurkezpena aprobetxatu dute Manttale Mendi Lasterketa talde berria ere aurkezteko.

2006ko apirilaren 13a • XXVI. urtea



03 EUSKAL IDAZLEEN XXIII. BILTZARRA

Idazlea, liburua eta irakurlea batera Saran Bazko Astelehenean



*Estilo ugariko
mobleak*

**LARUNBAT GOIZ ETA
ARRATSALDEZ IREKIA**



ORDOKI

altzariak

ERAKUSKETA: Bittiria 26

SALTOKIA: Plaza Zahorra 27 • Tfnoa: 948 63 77 80 • LESAKA



Euskara, bai goxoa!

"EUSKARA BAI GOXOA" ikastaroa gurasoendako:
seme alabekin jostatu eta gozatzeko!

NOIZ: apirilak 25 (asteartea),
apirilak 27 (ortzeguna),
maiatzak 2 (asteartea)
maiatzak 4 (ortzeguna)

ORDUTEGIA: 17:00etatik 19:00etara

NON: Doneztebeko eskola



IZEN EMATEKO: Malerrekako Mankomunitatean
(Merkatarien karrika 17 beheiti, Doneztebe),
telefonoz: 948 451746 (Mikel)
edo e-postaz: malerreka@animsa.es

EPEA: apirilak 20, ortzeguna artio.

PREZIOA: 10 euro

OHARRA: Gurasoek hala eskatzen badute haurtzaindegi zerbitzua eskainiko da.



MALERREKAKO MANKOMUNITATEA
EUSKARA ZERBITZUA
Merkatarien karrika, 17
31740 DONEZTEBE (Nafarroa)
Tfnoa: 948 45 17 46

DATUAK...

- Bazko Astelehenez eginen da Euskal Idazleen XXIII. Biltzarra Saran.
- Idazleen Biltzarraren saria Piarres Xarritonek eta Claude Dendaletzek eskuratuko dute.
- Bertze ehun bat idazlerekin, Saran izanen dira, Jokin Apalategi, Jean Battit Dirassar Jon Kortazar eta Txomin Peillen bezalako idazleak.
- Protagonista nagusia literatura bada ere, musikak, argazkilaritzak eta margolaritzak tartea izanen dute.



Jean Michel GARAT *Sarako Idazle Biltzarraren antolatzailea*

ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

«Idazlea, liburua eta irakurlea denak batera ditugu Sarako Biltzarrean»

Xan HARRIAGUE

Nola hasi zen Idazleen Biltzarra? Angoulême, urtero, komikien jaialdia ospatzen da eta sortzaileek haien liburuak izenpetzen dituzte. Nik berriz aspalditik banuen Euskal Herrian horrelako gauza baten antolatzeko gogo. Formula hori ikusi nuen eta oso egokia iruditu zitzaidan. Idazlea, liburua eta irakurlea denak batera biltzen ditugu. Orduan erabaki nuen, Euskal Herriari buruz idatzi duten jendea etxe berean eta egun berean bilduko nituela. Urte haietan turismo bulegoan sartu berria nintzen eta beraz proiektua aurkeztu nuen. Baimena izan eta lanean hasi nintzen. Lehen urterako, garai hartan Iparraldean famatuena ziren hiru idazleen lortzeko helburua finkatu nuen. Hain zuzen ere, Eugene Goienetxe, Jean Harritxelar eta Lafitte apezka. Deitu nituen. Jakin gabe zer erantzuna izanen nuen eta azkenean hiruak interesatuak ziren. Egiten bazen etorriko zirela. Bidean galdetu nien gomitatzeko bertze norbait ikusten zuten. Pixkanaka pixkanaka sorgin gupila osatu zen. Nire buruari helburu bezala

«Liburu batzuk argitaratzen dira egun horretarako eta antolatzaile batentzat horrek erranahi handia du, erreferentzia gara nolazpait»

eman nion, egunero, bazkaltzeko tenorean, idazle bat lortzea. Egunak joan ziren eta turismo bulegoarekin berriz bildu ginelarik 60 idazle banituen. Denak harrituak ziren. Hala hasi ginen lehen urtean 60 idazlerekin.

Zer zen Idazleen Biltzarra antolatzeko helburua?

Ohartu nintzen batetik, idazleek haien artean ez zutela elgar ezagutzen, eta bertetik, irakurtzen duzu liburu bat, gustukoa duzu ala ez, baina azkenean idazlea ez duzu ezagutzen, ez dakizu nolakoa den. Beraz, hortik hasiz, uste dut idazleen biltzarrak bi helburu dituela: idazlea, publikoarekin kontaktuan ematea eta, bistan dena, alderantziz; eta idazleen arteko harremana sortzea edo piztea.

Nolakoa izan da eboluzioa?

Azken bospasei urte arte, beti eboluzionatuz joan da. Gaur egun ehun bat idazle inguru biltzen ditugu. Izpi-

ritua aldatuz joan da. Hastapenean, Euskal Herriari buruz zerbait idatzi zuten idazleak biltzen ziren. Erran nahi dut, batzutan urte batetik bestera idazle batzuk etortzen ziren liburu berdinarekin. Orain aldiz, azken urtean Euskal Herriari buruz zerbait argitaratu dutenak bakarrik gomitatzen ditugu. Erran daiteke Iparraldean azken urtean liburu bat idatzi dutenen %80a Idazleen Biltzarrean egoten dela. Bisitariei begira berriz, kopurua beti handituz joan da. Joan den urtean mila lagun inguru bildu ziren. Aurten uste dut bertze hainbortze ibiliko direla, behar bada zerbait gehixeago.

Erran daiteke Durangoren anai ttikia dela?

Ez dut uste. Durango bezalako da, baina Sarako moduan. Hemen lehen-tasuna beti eman diogu idazleari. Urte aunitzez bakarrik idazleak etortzen ziren. Duela gutti hasi ginen argitateen gomitatzen. Ene ustez Durangon, idazle batzuk egoten badira ere, lehen-tasuna argitate handiek dute. Hemen alderantziz da. Aunitzez intimoagoa da. Harreman zuzena izan dezakezu idazleekin, mintzatu...



ARGAZKIA: XOLE MARILUZ

1793an, frantzes iraultzaileek hamabi herritako 4.000 lapurtar Landesetara deportatu zituzten eta horietatik 1.600 hil, tartean saratarrak. Berrehun urte beranduago omenaldia antolatu zuen Sarako Gaztetxeak.

SARAKO GAZTETXEAK 15 URTE BETE DITU

Hastapenean lagun taldea besterik ez eta gaur herriko biziaren partaide

Sarako gaztetxea duela 15 bat urte sortu zen. Legearen arabera 1990ko apirilaren 16an. 2005ean hamabortz urte betetzen zituela eta herriko gazteek hainbat ekitaldi antolatu zituzten. Ospakizun hauei bukaera emateko, Ortzirale Sainduko kontzertu handia. Gaueko izar nagusia Suediatik etorritako Clawfinger izanen da. Horiez gain Sarako BKBO, Kataluniako La troba Kung fu eta Irungo Bad Sound System arituko dira. Egoera txarrean zen egoitza moldatzearekin hasi ziren Gaztetxeko sortzaileak, baina geroztik talde famatuak ekarrarazi dituzte. Lehen urteetan ez zuten fama onik, baina pixkanaka gauzak aldatuz joan dira.

Xan HARRIAGUE

Bertze hainbat lekuetan bezala, 80garren hamarkadaren bukaeran Saran gaztetxe bat muntatzeko gogoagertu zen. Herriko gazte koadrila bat, 18 urte gabekoa, helduagoak ziren bertze herritar batzuekin elkartu zen

elkartearen lehen estatutuk idazteko. Garai hartan Manu Fagoagak, gaztetxearen lehen presidentea bilakatuko zenak, 24 urte zituen: «*Ezagunak genituen hiruzpalau gazte guregana etorri ziren, eta ideia ez zitzaigun bate-re zozoa iruditu. Bilkuren egiten hasi*

ginen eta laster egoitza baten beharra ikusi ginuen».

Horrelakoetan maiz gertatzen den bezala, teilatu bat izateko, herriko etxearengana jo zuten. Lortu zuten egoitzak itxura txarra bazuen ere, oso ongi kokatua zen, herriko plazan. «*Proposatu genien lehengo ospitalean azpiko gela hartzea. Hutsa zen eta egia erran erdi gana, abandonatua. Hain zen egoera txarrean nun erran ziguten ez zela posible. Hala ere, gure horretan segitu ginuen eta gure baitatik moldatuko ginuela hitz emanik onartu zuten».* Hilabeteak joan ahala, sortzaileen taldea handituz joan zen. Inguruko herrietatik ere gazte batzuk hurbildu ziren. Laster 30 bat ziren. Etxola izendatu zuten elkartean sartzeko kuota ttiki bat eman zuten eta diru hori baliatuz, egoitzaren molda-

tzeari lotu ziren. Lanean hasi bezain laster, kasik abandonatua zen gela oso polita izan zitekeela oharu ziren. «*Lehengo ospitalea izanik dena plastifikatua zen, moderno hein batean. Hori guzia ateratzen hasi ginen eta zureria, harri xabalak eta harrizko paretak denak agerian utzi genituen. Oso kontent ginen egin ginuen lanarekin*».

Gaztetxe batzen kasuan, lokal bat lortzea bukaera bat bada, saratar gazte hauentzat hasiera zen, azpiegitura bat baizik ez. Manu erran digun bezala, "gaztetxea sortu ginuen euskal konzientzia bultzatzeko eta jende batzuegan pizteko. Urte haietan ikastola hiruzpalau urte besterik ez zituen eta guk berriz laguntzeko gogoia ginuen. Ihaute-riak berriz, urte txar batzuk pasatu ondoren guri eta besta komiteari esker berpizten hasten ziren. Gero horiek utzi zuten eta guk segitu ginuen. Bertzerik gabe gure ondarea garatu nahi ginuen". Garai haietan Lapurdin, abertzalea edo euskal zalea izatea ez zen bada ezpada ongi ikusia. Frantses komunikabideen desinformazioaren ondorioz, abertzaleak edo autonomia zaleak utopistak ziren eta euskal zaleek, ezertarako balio ez zuen hizkuntza salbatu nahi zuten. Hala ere pixkanaka pixkanaka haien bidea egin zuten. Manuk erran digun bezala gaztetxeko ateak beti zabalik egon dira: «*Hastapena nahiko zaila izan dugu, ez ginen Sarako gazte guziak. Kultur mailan, urteek erakutsi duten bezala aitzindariak ginen. Bertze gazteak ez ziren bada ezpada guregana hurbiltzen hala ere idekiak ginen. Gaur, ikusten dudalarik gaztetxea herriko bizian onartua dela, zinez kontent naiz*».

URTEAN HAINBAT EKITALDI ANTOLATZEN DIRA GAZTETXEAN

Sarako gaztetxeak urte osoan hainbat ekitaldi antolatzen ditu. Gehienak besta giro inguruan kokatzen badira, gaur egungo batzordeak kulturari indar gehiago eman nahi dio. Duela urte batzuk Etxalar, Zugarramurdi, Bera, eta Azkaingoekin batera antolatzen zen hilabete kulturalaren haritik, erakustaldi, antzerki eta arteari lotuak diren ikuskizunak antolatu. Momentuz hauek dira urtean antolatzen dituzten ekitaldiak.

- **Ihaute-riak:** Ortze- gun Gizen eta Hauste- rren arteko asteburuan ihaute-riak ospatzen dituzte. Larunbarekin, herriko baserrian eskean ibiltzen dira. Biharamu- nean berriz, meztatik le- kora dantza batzuk es- kaini ondokik Zanpatza- rren auzia egiten dute eta plazan erretzen. Arratsaldean berriz ikastolak antolatutako bazkariaren ondokik herriko ostatuen itzulia egiten dute, bentak eta herrikoak.

- **Herri Urrats bez- perako kontzertua:** Ha- sieran Seaskakoek an- tolatzen zuten duela 7-8 urte utzi zuten. Orduan Sarako ikastolak, gazte- xeak lagundurik, leku- koa hartu zuen. Duela 2



ARGAZKIA: XOLE MARILUZ

Gaurkotasuneko gaiak plazaratu ditu Gaztetxeak Uz- taritzeko Lapurtarren Biltzarrean.

urtez geroztik azken hauek dute bakarrik antolatzen. Kontzertu ho- rretan aritu diren talde fa- matuak aunitz dira. Izen handienak emateko, Za- rama, Negu Gorriak, Bap, Anestesia, Kuraia, Kash- bad, Barricada...

- **Gau baten inguru- ko gaualdia:** Azken urte- etako berrikuntza da. Gai baten inguruan egi- ten duten gaualdia, izan Jet set gaua edo Koktail gaua.

- **Sarako bestak:** Sa- rako bestetan gaztetxe- aren idekierak, herrian ika mikak sortu bazituen ere, gaur egun, gaua bu- katzeko saihestezina den ostatua bilakatu da. Le- hen urteetan bakarrik ezaugarri bereziak zituz-

ten gazte batzuk hurbil- tzen baziren, azken urte- etan nornahi ibiltzen da, edozein adin edota ingurumenekoak.

- **Lapurtarren Biltza- rra:** Baztandarren biltza- rren itzala ez badu ere, urriaren lehen igan- dean ospatzen da La- purtarren Biltzarra. Sa- rako Gaztetxeak ka- rroa egiten dute eta Uz- taritzen desfilatzen.

- **Urte zaharrek pre- soen aldeko afaria:** Jo- an den urte zaharrea bi- garrena izan zen. Ideiak lehen ediziotik arrakas- ta handia izan zuen. 200 afari baino gehiago ematen dira gabonetako egiazko menu batekin. Irabaziak Askatasuna el- karteari ematen zaizkio.

Joanes GARCIA Sarako Gaztetxeko presidentea

“Euskal kultura gazteengan zabaltzeko tresna da Gaztetxea”

Kontzertuetan gaualdietan eta afarietan biltzen duzuen diruarekin zer egiten duzue?

Lehenik, saiatzen gira gazte- xea biziartzat. Egoitzan zer- bait konpondu behar bada mol- datzen dugu eta elkarteak di- rutan dituen beharrak hortik ateratzen ditugu. Baina egia da, gure helburua ez dela Gaz- tetxea aberastea. Gehienetan, edo presoen kolektiboek, edo

Bai Euskarari edo AEKri ematen diogu. Batez ere Euskal Herria bultzatzen duten el- karteei.

Gaztetxe bat beharrezkoa da Saran?

Nire ustez bai. Herri gehi- enetan behar liteke. Baina Sara bezalako herri batean batez ere. Herri bezala, Sara eus- kalduna da, baina kanpotik ge- ro eta jende gehiago etortzen

zaigu. Azkenean gaztetxea tresna bat da euskal kultura gazteengan zabaltzeko. Bertze alde gazteek haien iritzia plazaratu nahi badute, oso egokia da.

Gaztetxearen etorkizuna no- la ikusten duzu?

Ona momentukoz. Badakizu gaztetxe bat azkenean, moti- batuak diren hiruzpalau kide- rekin eta gero, bertzeak la- guntzen badute, aitzinera jo- aten da. Azkenaldi huntan gazte batzuk sartu dira, beraz, idu- ritzen zait oraindik etorkizuna baduela.



Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/79
TIRADA: 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.info
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidentea: Pello Apezetxea.
Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoién.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturkari, SLU.
Administrazioa: Amaia Goia.
Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetiña, Sandrine eta Krispin, Angela eta Xamo, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odrozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkartea...
Imprimategia: Gertu.
Erakunde laguntzaileak: Bera, Leizua, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Malerreko Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	30 €
Espainia	30 €
Sara (edantegia-okindegia)	40 €
Ipar Euskal Herria	50 €
Europa	50 €
Amerika	108 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leizua	25 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Doneztebeko ostatuai

Ttipi-ttaparen azkeneko alean eta beste zenbait iragarkitan ikusi dugunez, hurrengo hillabeteetarako Doneztebeko herrian hainbat gaupasa antolatu dira.

Bordaxoko gertaeren ondotik bertako gau giroak izan duen jeutsiera ikusita, ulertzekoa eta beharrezkoa iruditzen zaigu horrelako zerbait antolatzea.

Orañi arte dena ongi, baiño... noren erabakia izan da Ekainaren 24-an Santa Luzia plazan Jalisiko Band "kontzertua" jartzearena? Saldisko, gure herriko, San Juan bestetako egun handian, hain xuxen. Ez al zen beste egunik? Jakin dugunez, Doneztebeko hainbat ostaturen "lana" izan du da hau, udaletxearen onepinarekin.

Guri, saldistarroi, gure desadostasuna agertzea dagokigu, baiña agian inguruko herriek ere izanen dute afera honer buruz zer esana, zoritxarrez ez baita lehenbiziko aldia holako zerbait gertatzen dela.

Urte guzian eta hainbeste urtetan zehar Doneztebeko ostatuak, besteak beste, zenbat "xox" egiñ ote dute eskualdeko herrietako jendeari esker?

Eta ordaiñez hauxe jasotzen dugu: kaka burutik betti!!

Eskatzen dugu gauza bakarra errespetua da.

Saldiasiko gazteria

Maiatzaren 13an Irungo Bidasoa Institutuaren 50. urteurreneko bazkaria Ficoban

Ikasle eta irakasle izandakoek badute erreserbak egiteko aukera apirilaren 29a baino lehen 943666010 telefonora deituz.



Irungo Ficoban izanen da bazkaria

Ikastetxearen 50. urteurrena dela-eta, ospakizuneko jardueren artean 500 lagunendako bazkaria egingen da datorren maiatzaren 13an Irungo Ficoban. Bazkari honetara deituak daude urte hauetan ikastetxearekin harremana izan duten ikasle eta irakasle-ohi guztiak. Nahitaezkoa da horretarako erreserba egitea eta 30 euro balio duen tiketa biltzea. Tiketak zozketa biterako 3 zenbaki ere izanen ditu, eta sariak egunean berean emanen dira. Bazkaria trikitixa eta musika taldeekin animatua izanen da. Kontuan hartu behar da bakarrik 500 pertsonendako lekua dagoela, eta beraz, izen emate ordenaren arabera joanen dela lekua betetzen. Aste Santuko oporrak direla-eta, ikastetxea apirilaren 24tik aurrera irekia egonen da.

ESKUAL TITIRITEROEN 6. TOPAKETA
LARUNBATA 22

11. BERRI BPS taldeak "LAGOIA 81" antzezina du Duglitzan.
12. AIZUA taldeak "DAGI EGON" antzezina aurkeztuko duela Duglitzan antzezina.
13. IZAN TALEN taldeak "BATEA" antzezina aurkeztuko duela Duglitzan antzezina.
14. IRABAZIA taldeak "TITIRITEROEN" antzezina aurkeztuko duela Duglitzan antzezina.
15. TALAPITZIK taldeak berri berriko lana aurkeztuko duela Duglitzan antzezina.
16. BILKOA taldeak Duglitzan antzezina aurkeztuko duela Duglitzan antzezina.
17. TIBERIKO taldeak "SIBERIKO PROBLEMA" antzezina aurkeztuko duela Duglitzan antzezina.
18. IRABAZIA T taldeak "TIGRITIKO" antzezina aurkeztuko duela Duglitzan antzezina.

Egun onak! "Gintxo de Triana" eta "Gintxo de la Cacería" antzezinekin, eta "Luzarrak" taldearekin izanen dira Duglitzan.

IGANDEA 23

11. AIZUA taldeak "BIRALDIA" antzezina aurkeztuko duela Duglitzan antzezina.
12. BERRI taldeak "ALAKAZAR 2006" antzezina aurkeztuko duela Duglitzan antzezina.
13. ANTZEKAZINA taldeak "SIBERIKO PROBLEMA" antzezina aurkeztuko duela Duglitzan antzezina.
14. Euzkari Herria Saldiasiko.
15. IZAN TALEN taldeak "BATEA" antzezina aurkeztuko duela Duglitzan antzezina.
16. BERRIKO taldeak "SIBERIKO PROBLEMA" antzezina aurkeztuko duela Duglitzan antzezina.
17. TIBERIKO taldeak "SIBERIKO PROBLEMA" antzezina aurkeztuko duela Duglitzan antzezina.
18. Irabazian taldeak "TIGRITIKO" antzezina aurkeztuko duela Duglitzan antzezina.

Ongi etorri eta ongi pasa!!!

2006ko APIRILAREN 22 ETA 23AN ZUGARRAMURDIN
(Miki eta Euzkariarekin batera)

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Diario Vasco 2006-03-28

«Kategoria txikietan Leitzako taldean hasi nintzen txirindulan, jubeniletatik afizionatuetara Caja Rural taldean hartu naute eta afizionatuetako ibilbide osoa talde berean eman dut. Egutegi osatua dugu eta egia esateko oso gustora nago, ongi tratatzen gaituztelako. Bigarren urtean okerrago ibili nintzen, neguan pisua hartu nuelako. Lehenbiziko urtean ongi ibili nintzen eta ez nuen aldaketa somatu».

Mikel NIEVE

Leitzako txirindularia
D. Vasco 2006-03-28

«Lagun baten familiak baserria dauka Leitzan, aitzinean gaztainondo erraldoia duela. Zuhaitzaren eta baserriaren arteko harremanak historia luzea dauka, 700 urte baitzituen etxe aitzinean. 80. hamarkadan erori eta erdi hutsa gelditu zen arte. Enborrean argazki-kamera egitea gogoratu zitzaidan, zuhaitza kameran bihurtzea eta familiaren eta baserriaren argazkia egitea. Familia osoak zuhaitzarentzat posatu zuen».

Asier GOGORTZA

Berako argazkilaria
D.Navarra 2006-04-02

• 11 GALDERA LABUR •

Astez Iruñean eta asteburutan herrira. Non hobeki?

Toki bakoitza momentu bakoitzeko. Astez Iruñean nahiago eta asteburuan herrian.

Ingeleseko irakasle izateko bidean. Nolatan?

Betidunik irakasle izateko bokazioa izan dut. Eta horrekin aintzinerara segitu dut.

Bartzelonako Euskal Etxeko besta eta Euskal Herriko besten arteko ezberdintasuna?

Ez dago ezberdintasun haundirik. Baina guttitan egoten zaren herri batean besta zerbait aldatzen da.

Dublinen egondu zineneko momentu berexi bat?

Aunintz baino berezienak *afari koreano-euskalduna* egin genuenekoak.

Bartzelonako Trontxi edaria edo Euskal Herriko sagardoa?

Biek gustoko. Lehenik sagardoa eta ondotik trontxi edaria.

Herriko dantza taldean dantzatzen duzun dantza gustokoena?

Denbora gutti dugu dantzatzen, baina ikasi dugunetik, fandango poutpurria.

Kataluniako Carod Rovira edo Miguel Sanz?

Buaff!!! ez bat ez bestea.

Zein da zure janaririk gustokoena?

Aurtizko ostatuko postre ezberdin eta goxoak.

Iturengo zein besta duzu nahiago?

Besta izanez gero, edozein lekutan pasatzen dut ongi.

Zer duzu gustoko: ostatuko giroa, diskotekakoa edo plaazkoa?

Talde on bat dagoen plaza ostatu polit baten ondoan.

Ingeleseko irakasle, panderojole edo dantzari bezala ikusten duzu hobe zure burua?

Ingeleseko irakasle ana bezala, panderojole juerगतको aitzakia eta dantza afizioa.



Mirian ALTZURI

Iturengo panderojole eta dantzaria

HARTI NATURALA
Tel: 948 630 317
BERRAZKARREN BARRIOA 100 48

Karlos Alzugaray
FISIOTERAPEUTA
OSTEOPATIA
Itzea 20 · 31780 Bera · Navarra
T. 948 630 187 M. 607 853 208

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL
AGENTZIA

- Zurich Aseguruak**
 - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza**
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala**
 - Errenta Deklarazioak, IVA...
- Inmobiliaria**
 - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- Gestoria**
 - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tiñoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO

AZPIEGITURAK

Hainbat herrietan inbertsioak egingen dira 2006-2008 Toki Azpiegitura Plan Berezian

Ur-hornidura, saneamendu eta argiterian lanak egingen dira

ttipi-ttapa

2006-2008 urtetako Toki Azpiegitura Plan Berezia onartu du Nafarroako Gobernuak eta honen bidez, 162 herrietako ur-hornidura, argiteri eta zolaberritze lanak, baita udaletxe eta bideetan egin beharreko moldaketak diruz lagunduko ditu.

Eskualdeari dagokionez, honako inbertsioak egingen dira: **Urrotzen**, ur-hartzeko sarearen zati bat berritzeko 6.500 euroko inbertsioa egingen da aurten. **Narbarten**, ur-biltegi berria egiteko 35.000 euroko inbertsioa egingen da 2008an.

Aranon, ur-hartze berria egin eta Suro auzoa hornitzeko 20.000 euroko inbertsioa egingen da 2008an.

Urdazubin, herri eta auzoetako ur-hornidura sarearen zati bat moldatzeko 23.880 euroko inbertsioa egingen da 2008an eta **Baztanen**, Arizkun eta Erratzuko hornidurari soluzioa



ARTXIBOKOA

Hainbat herrietan saneamendu eta ur-hornidura lanak egingen dira.

emateko 36.000 euroko inbertsioa egingen da 2008an.

Donezteben, ur-hornidura sare nagusia berritzeko 119.487 euroko inbertsioa egingen da aurten.

Lesakan hainbat lan aurreikusi dira: Frain auzoan ura banatzeko lanetarako 235.430 euroko inbertsioa egingen da aurten; Nabaz auzoko

saneamendu lanetarako 207.769 euroko inbertsioa egingen da 2008an; Acentralia aitzinean Onin erreka sarearen eskuinaldeko saneamendurako 160.327 euroko inbertsioa egingen da 2007an eta ezker aldeko saneamendurako 141.109 eurokoa urte berean; Otsango auzoko hego mendi-mazelaren saneamendu lanetarako 142.677 euroko inbertsioa egingen da 2008an eta Antoiu karrikan, Onin erreka sarearen eskuin aldeko saneamendurako lanetarako 70.809 euroko inbertsioa egingen da 2007an.

Toki-Azpiegitura planaren zabalpenean ere inguru honetako zenbait lan sartu dira. **Baztanen** batez ere, tokiko ur-hornidura eta saneamen-

du sareetan hainbat lan egingen dira: Erratzuko tubo nagusia berritzeko 81.584 euroko inbertsioa egingen da 2007an; Elbeten, Elbete karrikan eta Autxitxia aldeko ur zikinaren sarea berritzeko 68.228 euroko inbertsioa egingen da 2007an; Anizen, ur zikinaren biltegia berritzeko 64.408 euroko inbertsioa egingen da aurten; Erratzun, herriko ur-banaketa sarearen bigarren faseari ekiteko 55.100 euroko inbertsioa egingen da 2007an eta Elizondon, Giltxaurdi karrikako saneamendurako sarea berritzeko 53.617 euroko inbertsioa egingen da 2007an. **Goizuetan**, azkenik, ur-hornidura eta euritako urak biltzeko lan osagarriak egiteko, 75.962 euroko inbertsioa egingen da aurten.

Lesakako herriguneko argiteria berritzeko bigarren fasea egiteko ere 238.008 euroko inbertsioa egingen da aurten.

Lanchas
PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRAK
BERRAZTARITZEAK
Tel: 948 631 076 - BERA

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

bori IRUDI
boriirudi@telefonica.net
KARTELAK - KANSETAK - BIZIKLETAK - TOSKATZAK (baita diseinu osari - diseinuarria)
FOTOKOPIA DIGITALAK - BUKLETTAK - TOSKATZAK - PLANGAK
ENKADREKATZAK - PLASTIFIKAZIOAK - PEPORTUAK - BULEGO MATERIALA
DISEINU GRAFICOA - LOGOTIPOAK - ERATZULAK - IMPRENTA
Entseku: 26. Etxebarria Bidea II - BERA - Tel/Fax: 948 631 571

BIZIKLETEN
SALMENTA ETA KONPONETA
BIZIKLETEN
KONPONETA
BIZIKLETEN
KONPONETA
BIZIKLETEN
KONPONETA

SAKON - GOZOTEGIA
Aitzate, 19•948630786 •BERA

BERA

Hirigintza planaren inguruan aritu ziren Udala eta Burgete kontseilaria

Bortz urtez erdigunean 750 etxebizitza egiteko aukera ikusten da

Amaia eta Ainhoa

Gipuzkoako mendebaldeko betea, promotoreek gero eta gehiago Nafarroa aldera begiratzeko dute. Norabide horretan Bera da lehen dabilen herria. Hori dela eta, Udalak hirigintza lan handia du. Gai horri buruz solasteko martxoaren 28an, Helena Santesteban herriko alkatea, Jon Abril alkateordea, Manuel Iriarte eta Julian Lekuona zinegotziak, Jose Andres Burgete Ingurumena, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza kontseilariarekin bildu ziren. Hauekin batera ere, Berako hirigintzako aholkulari berriak diren Felipe Saragueta eta Javier Lekuona izan ziren. Ikerketen arabera heldu den urteetan herriaren biztanleria 5.000 lagunetara ailegatu zitekeen. Honen aitzinean, hirigintzari irtenbideak proposatu behar zaizkio. Momentuz, 2011. urtera bitartean, Berako erdigunearen inguruan 750 etxebizitza egiteko aukera ikusten da. Eta hortik aitzinera, bertze 400.000 metro koadro aurreikusten da, baina honen inguruan azterketa osoa egin be-



ARGAZKIA: JON ALTZUGUREN

Jon Bru eta Patxi Vila Gure Txokoako txirrindularitza eskolakoekin batera Bosgarren ateraldia zuten martxoaren 25ean Gure Txokoako txirrindularitza eskolakoei, baina berezia izan zen, Kaiku taldeko Jon Bru eta Lampreko Patxi Vila beraiekin izan baitziren. Itzulitza egin eta elkarrekin berendua izan zuten lamotenean, bi txirrindularien garaipenak ospatzeko.

harra dago: bideak eta saneamendu sarea bertzeak bertze.

Berako argazki artxiboa aurkeztu da

2005ean Berako argazki artxibo digitala osatzeari ekin zion Udalak. Martxoaren 30ean, Berako Kultur Batzordeak Berako argazki artxiboa sortzeko egin den lanaren lehen emaitzak aurkeztu zituen pre-

tsurreko batean eta jendaurrean jarri zuen. Berako Udal liburutegiaren inguruan izan zen prentsurrekoa eta hemendik aitzinera eginen den lanaren berri ere eman zuten. Jon Abril kultura zinegotzia, Raul Iglesias kultura dinamizatzailea, Koro Muro Eusko Ikaskuntzako kidea eta argazki artxiboa osatzeko sortu den lantaldeko kideak egon ziren aurkezpenean.



ARGAZKIA: BERAKO ARGAZKI ARTXIBOAN

Gisa honetako argazki bitxiak eta ikusgarriak bildu dira Argazki Artxiboan.

FLASH

Martikori dirulaguntzak eman dizkiote

Nafarroako Gobernuak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Sailak 180.693 euroko laguntzak eman dizkie arrantzak eta akuikultura sektoreko enpresei. Zehazki, Conservas Martikori enpresari 54.487 euro emanen dizkiote eta bertze 65.251 euro gehiago, Lesakako izotz fabrika haunditu eta hobekuntza teknologikoak egiteko.

Bai Euskarari

Bai Euskarari Ziurtagiria banatzeko ekitaldia antolatuta du Bortzirieta-ko Euskara Mankomunitateak apirilaren 22rako. Kultur Etxean izanen da 20:00etatik aitzinera.

Folklore Jaialdia

Nafarroa Oinez 06ek Berako Kultur Batzordearen laguntzarekin antolatuta, folklore jaialdia antolatuta du. Apirilaren 29an izanen da Herriko Etxeko Plazan 18:00etatik aitzinera.

ANSONEA Jaletxea
Egunero: menua, karta eta antzerki menu bereziak
Terraza estalia eta Ziberkafea
Foran Plaza 1 - 948 631 155 - BERA

SAROB okindegia SANDERS pentsuak
Kalegora, 41 - Tel: 948 630 939 - BERA

BAR Botxo OSTATUA
© 948630052 • Zalain • BERA

LESACA

Apirilaren 23ko Erdi Aroko Azoka ekitaldiz gainezka dator

Hegaztien gripearean ondorioz ez da falkoneria erakustaldirik eginen

Aitor AROTZENA

Herriko besta egitarauan bere indarra haritzen ari den Erdi Aroko Azoka hirugarren aldiz eginen da aurten, apirilaren 23an. Goizeko 10etan hasi eta iluntzera bitarte, papera, loreak, harriak, ehoziriak, zeramika edo beira lantzeko hainbat tailer izanen dira eta haur jokoa ere eginen dira. Karrika animazioa ere ez da faltako, Maimur taldearekin, magoekin, perkusio taldearekin edo arku-tiroarekin. Guzira 40 artisau postu espero dira herriko karriketan. Beti Gazte elkartean dagoeneko zabalik dagoen XVI. mendeko emakume-kapeluen erakusketa ikusteko azken eguna ere izanen da. Joan den urtean bezala, Kasino jatetxean lau lagunentzako bazkaria zozketatuko da 13:00etan Alondigan. 18:30etan, Muxiko dantzaria izanen da Plaza Zaharrean Patxi Perezen eskutik.

Igandea egun nagusia izanen bada ere, bezperan, larunbatarrateko 22:30etan, Ramon Albisturek zuzendutako «Zabaleta dorreako dama» kale-antzerkia ikusgai izanen



ARGAZKIA. NAFARROAKO GOBERNUA

Neli gozokidenda kixkali zuen suak

Martxoaren 25eko goizeko 8:30etan gertatu zen sute batek erabat kixkali zuen plazako Neli goxokidenda. Etxe berean bizi da Neli Sanjurjo jabea, baina bizilagun batek abisatu eta gibebeko atetik onik atera ahal izan zen. 73 urte ditu Nelik eta 7 urte zituenerako hasi omen zen dendan lanean. Honen ondotik «haurrengatik penaz» erretiroa hartu beharko duela onartu du.

da. Zuzenki Erdi Aroko Azoka honekin lotua ez bada ere, garai horretan kokatutako hainbat liburu idatzi dituen Toti Martinez de Lezeak bere azken liburua aurkeztuko du apirilaren 20an, 20:00etan, Pleno Aretoan. Ortziralean, apirilaren 21ean, Liburuaren Egunaren aitzakiarekin, haurrentzako ipuin kontalaria izanen da liburutegian 18:00etan.


Dantzaren Nazioarteko Eguna

Apirilaren 30an, Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatzen dela eta, herrian dantzaren inguruan mugitzen diren pertsonak lanean ikusteko modua izanen da. Beti Gazte antolatzen dituen ikastaro ezberdinetan (saltza, dantza latinoak, sevillanak, batura, dantza-jazz, ballet, euskal dantzak...)

200 bat lagun eta Tantarumairu dantza taldean bertze ehun pasatuak ari direla kontuan hartuz, guziak bilduko dira egun honetan. 10:30etan dantza taldeen kontzentrazioa eginen da Plaza Zaharrean. Taldeak banatu eta saio laburrak eginen dituzte herriko xoko ezberdinetan. 12:30etan dantza saioa eginen dute berriz ere denak elkartuta plazan.

San Fermin erretiratuen elkarteak Lourdesera

Maiatzaren 5ean Lourdesera bidaiara antolatu du San Fermin erretiratuen elkarteak. 7:30etan abiatu eta bidetan gosalduko dute, norberak eraman duenarekin. Hori bai, ura eta ardoa elkarteak jarriko du. Lourdesen, santutegia bisitatu eta meza aditu ondotik, bazkaria izanen dute Florida jatetxean. Izen ematea maiatzaren 1a baino lehen egin beharko da, 17 euro ordainduta. Autobusean lekurik geldituko balitz, bazkide ez direnek izanen dute joateko aukera, 20 euro ordainduta. Bertze aldetik, maiatzaren 1ean araututako ibilaldia eginen dute jubilatuek. Aitzinetik izena eman eta 9:30etan egoitzatik abiatuko dira. Konbentutik Beheko Errotara joanen dira ibiltariak, konbentura fabrikako errepidetik itzuliko dira; Sumusua, Irubide Kastillobaitatik, Arratzubiko zubia, Matxiteña, Martxanpaita, Txakaingo zubia, Txakaingo iturria, Matxiteña, Lizardibaitako zubia, Eroski eta Plaza Zaharretik barna, berriz ere egoitzara bueltatuko dira. Ondotik, hameketakoa eskainiko da.

 Toailak-Mantelariak-Oheko mandreak Eskolako haurren mantelak etab... bordatzen ditugu

Herriko bestetarako, kamisetak, eta blus peña bakoitzaren logotipo eta izenekin bordatzen ditugu

Herri Plz. Berria 4-ra eta ikusi bertako eskaintza!! Tel: 948 637 460 - 689 481

 **TALLERES BERRIZAUN**
GASOLINERA LESACA
IMANOL TELLETXEA ZUZAYA

Gasoila etxera eramaten dugu

Tel. 948 63 74 60 31770 Lesaca (Nafarroa)

GOZZALDO



Larunbata 22

22:30etan KALE ANTZERKIA:
Zabaletako Dorreko Dama
Ramon Albistur-ek zuzendua

Igandea 23

(10:00etatik aitzinera iluntze arte)

AZOKA: Postuak, Haur jokoak, Keramika, Beira,
Forja...tailerrak, Kale animazioa: Trikimaku...

ERAKUSKETA Alhondigan: XVI. mendeko
emakume kapeluak

ZOZKETA 13:00etan plaza zaharrea:
+ lagunentzako Erdi Aroko bazkari bat,
Kasino jatetxean.

DANTZALDIA: 18:30 Muxikoak,
Patxi Perez-ek gidatuak.

ERDI AROKO III. Azoka

Apiriak 22-23 Lesaka

ETXALAR

Datozen egunetan irekiko da Usoa Nekazari Kooperatibako hornidura-unitatea

Bi gasolio mota erosten ahalko dituzte bai Usoako bazkideek, bai bazkide ez direnek

Joseba eta Nerea

Bertze makurrik ez bada, heldu den astean paratuko dute martxan Usoa kooperatibako hornidura-unitatea. Aitzineko Ttipi-Ttapan aipatu genuen bezala, bi gasolio mota salduko dituzte. A gasoila (kotxe-entzako) eta B (kalefakziorako eta traktore-entzako). Gasoila erosteko aukera denek izanen dute, kooperatibako bazkide direnek eta ez direnek. Erosketa egiteko berriz, txartel batzuk behar dira. Txartel horiek egiteko eskaera orria kooperatiban bertan dago eta bazkideek zein bazkide ez direnek egiten ahal dute. Azken hauek 10 euro ordaindu beharko dituzte txartela eskuratu ahal izateko.

BERTZE GASOLINDEGIAK BAINO MERKEAGOA

Gasoiila eguneko 24 orduetan hartzen ahaliko dute txartela dutenek hornidura-unitate honetan. Txartelik ez dute-



ARTXIBOKOA

Gasna Feria Eguna izaten da Altxata Kultur Elkarteak antolatzen duen urteko ekitaldirik garrantzitsuena. Zientoka bisitari biltzen da urtero ekainaren lehenbiziko astehondarrean feria honen aitzakian. Gisa honetako besten alde lan egiten du Altxatak. Zu ere bazkide egin zaitezke 10 euroren truke eta herriko kultura sustazen eta bultzatzen lagundu.

nek ere, gasoila erosteko aukera izanen dute baina kooperatiba irekia dagoen orduetan bakarrik. Gasoilaren prezioari dagokionez, bertze gasolindegietan baino merkeago saldu nahi dute. Abantaila hori izanen da eta probetxatu!

Altxata Kultur Elkartearen Batzar Orokorra

Urtero bezala, martxo hondarrean egin zuten Altxata Kultur Elkarteak urteko Batzar Orokorra. San Jose Egunean, martxoak 19, hogeit bat lagun bildu zi-

ren Kultur Etxean hainbat gaiez solasteko. Iazko kontuak onartzea, aurtengo aurrekontua zehaztea eta junta berritzeaz aritu ziren bertzeak bertze. Aldaketa nabaririk ez zen gertatu baina juntan kide berri bat sartu da: Arantxa

Danboriena. Orain arte idazkari lanetan aritu den Nerea Mitxelorenak berriz, utzi egin du. Aldaketa honekin, gisa honetara gelditu da Altxatako junta berria: Lehendakaria Iñaki Danboriena; lehendakariordea Izaskun Ariztegi; diruzaina Garazi Lujua eta idazkaria Arantxa Danboriena.

BAZKIDE EGITEKO AUKERA

Altxatak 120 bazkide inguru ditu herrian baina irekia dago sozio egin nahi duten guztientzat. Interesatuak juntako edozein kiderengana jotzea bertzerik ez dute eta hauek emandako orri bat betetzea. Urtean 10 euro ordaindu behar dira eta ez du inolako konpromisorik eskatzen. Bertzerik gabe, herriko kultur dinamizazioaren aldeko laguntza eta herri mailan antolatzen diren ekitaldietarako kolaborazioa da 10 euro horiekin ematen dena.



PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masalak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

XATURETXEA

Zaintza
JATETXEA

T: 948 637 027 - LESAKA

IRU BIDE

Energia - Aukerak

Bilatu ERU 3 - LESAKA
Tel: 948 637 127

J. RAMOS

zolak akutxilatuta eta barnizatzen ditudu

Telefono: 948 637 173 LESAKA • Salbesteratu: 637 816053

IGANTZI



ARGAZKIA: OIHANA TXOPERENA

Herri Kirol ekitaldi polita izan apirilaren 2an Igantzin. Nafarroako Kirol Jolasen barrenean ligaxkan ari-tu dira orain arte herriko gaztetxoak. Igantzikoa ligaxkaren azken jardunaldia izanik, bertan erabaki zen zein taldek lortuko zuten apirilaren 9ko Burlatako finalera joateko txartela. Bada, alebinak konbinatuan ziren aritzeoak final horretan eta infantilak sokatiran. Bi taldeak ageri dira argazkian.

Aurre matrikula eskolan

O.T.

Ez da normalean Igantzin, bertze zenbait herritan gertatzen den bezala, arazo edo kezka haundirik izaten eskola aukeratzeko orduan. Herrian eskola bakarra izanik, aitzinetik jakiten da hurrengo ikasturtean zenbat haur berri hasiko den eskolan. Dena den, aurrematrikulazio kanpaina itxi berria denez, irailean Haur Hezkuntzaren lehenbiziko mailan hasiko diren haurren izenak emanen ditugu. Ongi orekatutako taldea izanen dela erraten ahal da, 5 neska eta 5 mutiko izanen baitira taldean: Ane Yanci, Xabier Muro, Aiala Mitxeo, Oier Etxarte, Oier Sein, Maren Etxenike, Joritz Eugi, Nimbe Urtxegi, Garazi Azpiroz eta Unax Arbelaitz. 6. mailan dauden 5 ikasleak Berara joanez gero, heldu den ikasturtean 54 haur izanen dira Igantziko Eskolan.

Bi alegazio aurkeztu zaizkio Orsaren lantegiari

Alegazioei buruzko txostenak egin beharko ditu orain Udalak

Oskar TXOPERENA

Martxoaren 15eko Nafarroako Boletinak ekarri zuen Orsak Igantzin ireki nahi duen lantegiari buruzko informazioa. Bertan paratzen zenez, jendearen esku jartzen zuen Udalak espediente honi dago-

kion informazioa, nahi zuenak alegazioak egin ahal izateko, 15 eguneko epearen barrenean, hau da, apirilaren 1era arte. Epe hori akaututa, bi dira Orsaren lantegiaren espedienteari aurkeztu zaizkion alegazioak, bata Maria Luisa

Etxeberria Madariagak sinatua eta bertzea Eduardo Migelena Legasak. Ilbeltzaz geroztik herrian egindako sinadura kanpainan bildutako 130 sinadurak daude itsatsita lehenbizikori. Orain, alegazio hauei erantzun behar-

ko die Udalak eta Nafarroako Gobernura zuzendu beharko ditu bai alegazioak eta baita bere iritzia edo txostena ere. Ondotik, Nafarroako Gobernuko dagokion departamentuak erranen du alegazioak bidezkoak diren ala ez.

BORTZIRI
UNSION ANAIAK

sukalderako altzariak

ERAKUSKETA

Bereau etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891
Faxa: 948 637 511

PERSIANAS TOLDOOS BAZTAN

TOLDOAK sailmenta-konponketa-alkairua-errotulazioa
MOSKITERAK PERTSIANAK motorizatuak-venecianak
PVCzko LEIHO eta ITXITURAK

Tel-Fax: 948 631 003
Bidasoa, 66 behea - BERA

ARANTZA

Lagun andanak oporleku du herria egunotan

Eskolak Euskaldundu eta Nafarroa Oinezan aldeko ekimenak egin dira

Nerea ALTZURI

Urteko lehenengo hiruhilekoa gibelean utzi dugu. Aste Santuko oporraldi ttikia hemen dugu eta urtero bezala, eguneroko eginbeharretatik aldenduz, atseden hartzeko egunak dira aunitzentzat. Oporretara kanpora joateko ohitura ez dago sobera errotua oraindik baina herrira bisitari aunitz etortzen dira egunak pasatzera. Beraz, batzuek behintzat, ostatu, jate txehiz nahiz landetxe zerbitzuak eskeintzen dituztenek, ez dute aspereko betariki izanen.

Kristautasunaren bidean ez dira garai bateko dolu egunak izaten baina egunez-egun elizkizunak, gurutze bidea, prozesioa... izaten dira.

Nolanahi ere, modu batean edo bertean ea eguraldi ona izaten den

eta ongi igarotzen dugun astetxoa.

Euskal irakaskuntzaren alde

Joan den martxoaren 25ean eskualde mailako "Eskolak Euskaldundu" kanpainaren barne eta arratsaldean ekitaldiak egin ziren bertako gazteek eta gurasoek antolatuta. Haur kuadrila batek jokuetan parte hartu zuen lehenik; merendua guraso elkarteak prestatu zuen eta gero sinadura bilketa egin zen. Azkenik hogeita hamarren bat lagunek Ekaitza elkartean afaldu zuten.

Bertzalde, apirilaren 8an bertso kalejira egin zen Nafarroa Oinezan alde. Bertan, Jon Barberena eta Jon Elizetxe elizondar eta gartzaindar bertsolariek parte hartu zuten.



ARGAZKIA: JOXE RAMON AMOROS

Orain dela hilabete bateko argazkia baldin bada ere, negua zen. Aste Zuria programaren barne, hamar ikasle eta Joxe Ramon eta Karnele irakasleak martxoaren lehenengo astea Otsagin elurretan pasatu zuten. Elurra nahi adina eta gehiago ere topatu omen zuten eta gainera bortziriar lagunekin egonaldi ederra egin omen zuten: eskiatzen, jostatzen...



ARGAZKIA: PILI ALTZURI

Argazkian eskulanetako taldekideak dituzue Pui irakaslearekin: Maria Dolores, Koldobike, Loli, Kontxita, Pili, Itxaso, Edurne, Mari Karmen, Rabel, Maixe eta Kontxita. Batzuek bertzeek baino urte gehiago daramazkite ikastaro honetan parte hartzen. Kuadroak, ispiluak, gantxilo eta zaharberritze lanak... etxe barrera dotore jartzeko modua izan dute denek ere. Ikastaldian urriari hasi ziren eta astearte honetan akautu dute. Zahar Txokoko egoitzan asteartero bi orduko bi txanda izan dituzte.

BAZTAN BIDASOAKO sagardotegiak

LARRALDEA LINDURRENBORDA

LARRALDEA eta LINDURRENBORDA
Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA
Tollera auzoa • LERANIZ
948 432721 • 926 494317

LINDURRENBORDA
Nabaz auzoa • LESAKA
948 632712

Tel. 948 634 179

ARANTZA

ATERPE
ALBERGIA

ALBERGIA • IATETXEA

Alberto RETEGI
abokatuak
abokatuak

948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

ZJ
Zalain
jateetxea

Hostala

14 logela,
bainu eta TBrekin

2^a Zabaldeko sarrera • Tel. 948 63 08 67
Bera - Nafarroa

Convergencia de Demócratas de Navarra-CDNren batzarrak, Iruñean 2006ko martxoaren 25ean egindako ohiko bilkuran, Foru Komunitateko alderdi politiko demokratikoei eta gizarteari Nafarroaren aldeko Ituna proposatzen die, honako puntu hauekin:

1. Baieztatu eta defendatzen dugu soilik Nafarroako herria dela bere orainaren eta etorkizunaren jabe, eta bere borondatea, instituzio demokratikoetan ematen dela aditzera. Horregatik, biolentzia eta terrorearekin baldintzatuz erabakiak inposatzeko edozein saiak era gaitzesten dugu.

2. Nafarroako herria da bere eskubide historikoen eta autogobernuaren jabe eta gordailuzaina, historian zehar lege-testu eta Estatuarekin egindako akordioetan zehaztu dena eta Konstituzioaren lehen xedapen gehigarria garatuz, gaur Nafarroako Foru Eraertza Birrezarri eta Hobeagotzeko Lege Organikoan bildua. Gaur egungo egoerak ez dakar berekin dagokigun beste edozein eskubide historikori uko egitea.

3. Nafarroako herriaren berezko izaerak autogobernu erakundeei eustea eskatzen du, gaur Foru Komunitate bereziaren forman. Horregatik, errefusatzeko beste batean integratuz desagerrarazteko edozein saiakera, edo Nafarroako herriaren borondate askea inposatu edo baldintzatzearen truke bakea lortu nahi duen edozein negoziatzian erabiltzea. Beraz, Euskadiko Autonomia Erkidegoan integratzearen kontra agertuko gara.

4. Foru Hobeagotzean ageri den Nafarroako proiektu politiko eta instituzionala, Foru Komunitate berezi gisara, Nafarroako Gobernuak osoki bermatu behar duela uste dugu. Beraz, proiektu hau onartzen ez dutenekin eta Foru Komunitatea eta herri nafarraren berezko izaera desagerraraziz aldatu nahi duten indar politikoekin osatua izatea errefusatzeko dugu.

5. Berezko izaera eta pertsonalitate propioa kenduz Nafarroa bere proiektu politikoan sartzeko euskal nazionalismoak duen guraria errefusatzeko dugu. Era berean, Nafarroa Estatu espainoleko beste Komunitate Autonomoekin parekatu nahi dituzten portaera zentralista eta berdintzaileak ere errefusatzeko ditugu, ez baitute herri nafarraren eskubide historikoak eta bere autogobernua errekonozitzen eta deskalifikatu eta ukatzen dituztelako "pribilegiotzat" joz.

6. ETari desagitea eskatzen diogu eta bere inguruan bide demokratikoetan sartzeko. Prozesu hau bakarrik legalitate konstituzionalaren barrenean egin daiteke eta indar demokratikoei Iruñeko Itunetan eta 2005eko urrian Nafarroako Parlamentuko ebazpenetan aurreikusi zituzten baldintzetan. Ez dugu onartzen bakea biolentzien inposaketaren ondorio izatea, ezta Nafarroa erabiltzea elkarriketa prozesu bakar batean ere, berezko dituen instituzioak alde batera utzita erabaki bat inposatzeko asmoarekin.

7. Estatuko instituzioei eta, partikulariki, Nazioaren Gobernuari, erregimen konstituzionala eta espainiar herriaren askatasuna bermatzea eskatzen diegu, herri nafarraren erabaki-ahalmena errespetatuz.

8. Biolentzia terroristaren biktimen oinazearekin bat egiten dugu, espainiar gizarte osoaren laguntza behar baitute, beraien neke eta sufrimendua errekonozitu eta beraien bizitzak berregiteko beharrezkoak diren laguntzekin.

9. Gizartea bakean eta baketua egon dadin lortzeko ahalegin kolektiboaren alde gaude, pertsona guztiek askatasunean, justizian, berdintasunean eta elkartasunean garatu ahal izateko behar diren bitartekoak eta eremua izan dezaten. Botere publikoek bereziki gutxietsiak daudenen edo desberdintasun egoeraren bat sufritzen dutenen alde egin behar dute, beraien gizarte integrazio osoa lortzeko helburuarekin.

10. Herri nafarrari, askatasunean beretzat egin duen elkarbizitza markoa babestea eskatzen diogu eta bera ordezkatzeko duten instituzio demokratikoak indartzea, Obanoseko Infanzuoen ikurrak dioen bezala "Pro libertate patriae, gens libera state".

Iruña, 2006ko martxoaren 25ean.

%100
Nafarroaren alde



BORTZIRIETAKO HIRI-HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

Jakinarazten dut:

2006ko lehen urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:

Ordaintzeko era:

Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:

Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.

Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

Ordaintzeko epea:

- 2006ko maiatzaren 31n bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2006ko ekainaren 30era arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izango da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekarquarekin kobratuko da.

Bortzirietan, 2006ko apirilaren 1ean

Presidentea
Paxiku Irisarri Elizagoien

2006ko TASAK

ERABILTZAILEEN eta TASEN MAILAK

KONTZEPTUA EUROAK

Zentsatutako etxebizitza guztiak, bertan norbait era iraunkorrean bizi ala ez:	66,68
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden baserriak	56,68
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden baserriak	46,68

1. Merkataritza eta zerbitzuak.

Elikagaien eta etxeresnen sektorekoak ez direnak: Mertzeriak, drogeriak, burdindegia, okindegiak, ileapaindegia, lan bulegoak:

66,68

2. Merkataritza. Elikagai dendak

(harategiak, arraindegia, janari dendak), etxeresnen dendak eta farmaziak:

130,80

3. Merkataritza. Autozerbitzuak:

199,50

1. Ostatua. Noizbehinka irekitzen diren

ostatu eta biltegiak eta jarraian irekita egoten diren bertze batzuk ere, 30 m²ko edo gutxiagoko azalera dutenak:

132,86

2. Ostatua. 30m² baino azalera

handiagoko ostatuak eta janari denda daukaten ostatuak:

266,12

3. Ostatua. Pub eta diskotekak:

332,48

1. Jatetxea. Modu iraunkorrean irekiak

dauden Elkarte gastronomikoak, eta borts mahai edo gutxiago dituzten jatetxeak:

332,48

2. Jatetxea. Borts mahai baino

gehiago dituzten jatetxeak:

598,52

Landetxeak:

Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden landetxeak:

113,40

Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden landetxeak:

93,38

1. Hostala. Hamar logela

edo gutxiagokoak:

465,28

2. Hostala. Hamar logela

baino gehiagokoak:

664,80

Merkataritzako saltokiak,

jatetxerik gabekoak:

664,80

Merkataritzako saltokiak,

jatetxedunak:

997,28

Lantegiak, lau langile bitarte:

66,68

Lantegiak, 5-10 langile bitarte:

132,86

Lantegiak, 11-30 langile bitarte:

332,48

Lantegiak, 31-60 langile bitarte:

664,80

Lantegiak, 60-150 langile bitarte:

997,28

Lantegiak, 150-300 langile bitarte:

1.889,72

Lantegiak, 300 langile baino

gehiagorekin:

2.785,34

Zuzenean zabortegira botatzea;

metro kubiko bakoitzeko.

28,72

Neumatikoak zabortegian uztea;


kilo bakoitzeko

0,26

EUSKARA

Familia euskaldunetan egonaldiak antolatu dira aurten ere

Apirilaren 25a baino lehen eman behar da izena




tipi-ttapa

Azken urteotan bezala, HABE erakundeak "Egonaldiak familia euskaldunetan" izeneko ekimena antolatuko du aurten ere, Euskal Herriko hainbat familieren laguntzaz. Ekimen honen helburu nagusia euskara inguru euskaldun batean praktikatu eta bertako bizimodu eta kultura gertutik ezagutu nahi duten pertsonen famili euskaldun batean hilabeteko edo bi hilabeteko egonaldiak eskaintzea da.

Horretarako, udan euskara ikasten ari den jendea hartzeko prest dauden familia euskaldunak behar dira. Famili hauek zenbait baldintza bete behar dituzte. Egonaldiak hilabetekoak izanen dira guttienez, eta hilabete bakoitzean lagun bakarria hartu ahal izanen da etxean. Ikasleak 18 urtetik goitikoak izanen dira eta ikaslearentzako logela bat libre izan behar du familiak. Gainera, egonaldia eskaintzen den hilabetean etxean, guttienez, hiru lagunek bizi behar dute. Familiak, horren truke, 600 euro jasoko du hilabete bakoitzeko.

Izena emateko epea apirilaren 25ean akautuko da eta horretarako inguru honetako Euskara Zerbitzuekin harremanean jarri behar da. Urrats euskaltegiaren 943 474447 telefonoan edo www.egonaldiak.net orrian ere informazioa eskura daiteke.



C 2

INKET K EK FUNTZI N MEN U

s r r z r u r t z n r z u r k n t r

ur|Kutxa n s r r z r u r t z n r z u r k n t r t u u r r r n r r.
H r r t k k r f t u l s u r | K u t x a n C r n t r m a z t k t l t u u r
l n c n k n u r r a k t k r r k f u n t z n m n u r r n n n.

ZU EK NFI NTZ ,GU E II LEGIN

NAFARRAK
RUR L KUTXA

LANA

Langabeziak beheiti egin zuen martxoan eskualdean

684 lagunek eman dute izena Donezteko bulegoan

ttipi-ttapa

Langabeziak, otsailen hasitako behera-kada segitu zuen martxoan ere. Otsailaren hondarrean 700 lagun apuntatuak ziren Doneztebeko Enplegu Bulegoan. Hilabete beranduago kopuru horrek 16 lagunetan beheiti egin zuen eta 684 ziren. Mugimendu hori gehien aprobetxatu zutenak 25 urte baino gehiagoko gizonak izan ziren, 10 guttiago baitziren langabezia. Emakumeei dagokienez, berriaz, 25 urte baino guttiago dutenak langabezian lau guttiago ziren eta 25 urte baino gehiago dutenak bi guttiago. Beraz, lan bila dabilen 25 urte baino guttiagoko gizasemeen kopurua ez zen mugitu.



Lan arloka, langabetu kopuruaren behera-kada sentitu zen batez ere zerbitzu arloan, martxoan 14 baitziren arlo horretan lana aurkitu zutenak; eraikuntzan 5 lagunek topatu zuten lana eta nekazaritzan batak. Industria sailari dagokionez, lan eske dabilen kopurua bi lagun bezain guttiago egin zuen eta sekulan lanik egin ez dutenen artean ere, bi

gehiago ziren langabetu sartu zirenak.

Martxoko aurtengo zenbakiak baikorrak badira ere, joan den urtekoekin konparatuz ez dira hain onak. Iaz, garai berean, Doneztebeko Enplegu Bulegoan 632 langabetu zeuden apuntatuak, aurreko baino 52 guttiago. Urte batetik bertara, beraz, langabeziak %8,2 goiti egin du.

OSPAKIZUNAK

BAZTANDARREN BILTZARRA 06

Elizondoren uztailaren 16an

eskuarak batzen gaitu!



Amaia Iturralde berroetarrak irabazi du Baztandarren Biltzarrako kartel lehiaketa

Amaia Iturralde berroetarrak irabazi du 2006ko Baztandarren Biltzarreko kartel lehiaketa. EHU publikitate eta harreman publikoak ikasten dituen Amaiak eta obra onena saritzen dituen 500 euroko Baztandarren Biltzarreko egunean, uztailaren 16an eskuratuko du. Joan den urteko lan kopuru berdintsua aurkeztu zen, orotara 27. Gehienak Baztangoak ziren, baina Nafarroako bertze eskualdetatik eta Euskadiko erkidegotik ere ailegatu ziren. Epailan lanean Itziar Mena, Ines Barberena, Begoña Durruti, Tomas Sobrino, Gotzone Sanzberro eta Jexux Bailon aritu dira.

Bierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Iturritx autoa · Tfnoa: 948 592 043
ORONÓZ · MUGAIRI

egoi bardot obregozo arkitektoa
679649789 elizondo · braulio iriarte 33,1º D · 31700
948210963 iruñea · paulino caballero 15,1º A · 31002

HERNAN
ESTREO
EDENTEGIE
CAFÉ DE LA MAIRIE
T: 0539542519
Maixak eta Vannique
CABA

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa bemi ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Eibaritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegaritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittoria, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxa: 948 637 404
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

D

◀◀◀◀ H I R U K I O E ▶▶▶▶

Eguzki panelak ▶▶ Iturgintza 630 441 315
Industria mantenimendua ◀ 628 015 933
Aire egokitua ◀
Elektrizitatea ◀ 606 980 440

Zelai Industrialeko 42 B · 15 · 31780 BERA (Nafarroa)
Fax: 948 625 392 · email: zerbitzu@terra.es

SUNBILLA

Partehartze handia izan da aurten ere Kultur Egunetan

Hameka koadrillek parte hartu zuten paella lehiaketan

Jaione O. A.

Martxoaren 25 eta 26an egin zen Asteburu Kulturalak partehartze handia izan zuen. Larunbatean haur ugari hurbildu ziren frontoira herri kirol eta jokuetan aritzera. Leku berean egin zen kuadrila arteko paella lehiaketa ere. Hameka paella aurkeztu ziren eta sukaldaritzan adituak diren Angel Mariezkurrena, Loli Gandara eta Pako Errandoneak osatu zuten epaimahaia. "Espentza" taldeak egin zuen paella beltzak irabazi zuen herriko lehen paella lehiaketa. Paella txapelketan partehartze handia izan bazen ere,

ikustera ere jende aunitz hurbildu zela aipatu behar da. Txapelketa akituta, partehartzailerik elkarrekin bazkaldutu zuten. Arratsaldean haurrentzak gaztelu puzgarriak eta kuadrillentzat hainbat joku desberdin izan ziren. Hauek akitu bezain laster triki poteoa hasi zen eta ondoren kanpinean egin zen afarian 65 pertsona inguru elkartu ziren. Hurrengo egunean, igandean, herriko emakumeek egindako eskulanen erakusketa izan zen Ulibeltzak elkartearen. Aurten, gainera, bertze batzuk egindako eskulanak ere ikusgai izan ziren: egurrezko tallak,



ARGAZKIA: EDURNE ZUBIETA

Paella txapelketan irabazle suertatu zen «Espentza» taldekoak.

gantxilloz egindako kortinak... Aspaldiko urtetako argazki erakusketak ere izan zen. Jendeak gustora ikusi zituen argazki hauek, zenbait argazkitan nor ote zen asmatzen eta gure herriak duela 50 urte inguru zeukan itxura ikusiz. Arratsaldean, Iturburu ostatuan mus txapelketa jokatu zen. 14 bikote aurkeztu ziren eta irabazleak Mari Carmen eta Estefani izan ziren. Asteburu Kulturala akitzeko, urtero egin ohi

den bezala, Antzakaitz kultur taldeak, zari ederbaten zozketa egin zuen. Florentino Gelbentzuri suertatu zitzaion.

«Alfredon» bazkaria

Apirilaren 15an kuadrillen bazkaria izanen da Ulibeltzan. Alfredo Arretxea sukaldari gaztea kuadrillarekin hasi zen bazkaria egiten eta poliki poliki herriko bertze zenbait gazte elkartzen joan zitzaizkien. Azke-

nean, herriko gazteen-tzat urteroko zita bihurtu da "Alfredon bazkaria". Urtero jaki berexiak prestatzen ditu. Arratsaldean, musika izanen da Agerralderekin.

Amerikanoen besta

Ameriketara ibilitako herriko artzaiek urteroko bilkura egiten dute maiatzaren 1ean. Aurten, ordea, berezia izanen da, beraiei buruz idatzi den liburua ere aurkeztuko baita.

1951tik lantzeria-etxea
Casa Cambra

UDABERRIKO KOLEKZIO BERRIA

albornozak • mantelak • edredoi nordikoak
edredoi-azal nordikoak • ohe estalkiak
maindireak • kuxinak • toailak

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

DONEZTEBE

Kirol instalazioak kudeatzeko lanpostua betetzeko lehiaketa deia egin du Udalak

Eskariak apirilaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira udal bulegoetan

ttipi-ttapa

Herriko kirol instalazioak kudeatuko dituen langile bat kontratatu nahi du udalak, oposizio-lehiaketa bidez. Langileak euskara jakin beharko du eta Doneztebeko udaleko langile finkoa izanen da. Langilea herrian bizi dena izan beharko du edo lanpostua eskuratzen duenean, herrian edo herriatik 15 kilometro baino guttiagora bizitzen jarri. Proposamenak apirilaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira udal bulegoetan.

Errekari dirulaguntza

Nafarroako Kutxa «Tu eliges: tu decides» egitasmoan murgildua dago. Honen bitartez, elkarte bakoitzari Nafarroako Kutxak emanen dion dirulaguntza bere bezeroen erabakiaren esku uzten du. Aurkeztu diren proiektu guztien artean Erreka kirol elkartearena dago. Proiektu hau, Errekaren ohiko



ARGAZKIA: OSKAR MINDEGIA

Erreka mendi taldeak antolatuta, autobusa antolatu zen martxoaren 26an Formigalera eskiatzera joateko. Autobusa bete zutenen artean zeuden argazkiko neska koadrila hau.

sekzioetan lan egitean datza: eskubaloia, judo eta pilota (170 gazte inguruk parte hartzen dute sekzio hauetan urte osoan). Horretaz gain, bertzeko ekitaldiak ere antolatzen ditu Errekak: herri krossa, udako kirol eskola, pala txapelketa, Javierada eta Formigalera autobusak,

frontenis eta futbito herri txapelketak, Mendiaren Eguna...

Errekako kontuetaz ari garenez, elkartek hamekagarren aldiz paleta-goma txapelketa antolatu du, Udalaren eta zenbait erakundeen laguntzaz. Izen emateak apirilaren 28a baino lehen egin behar di-

ra, Patxikuri deituz 17:00etatik aitzinera (653 735162 telefonora). Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu. Sariei dagokienez, irabazleek 240 euro, txapela eta trofeoa eskuratu dute; azpitxapel-dunek 120 euro eta trofeoa; hirugarrenek 60 euro eta trofeoa eta

laugarrenek trofeoak. Maiatzan eta ekainean jokatu dira partidak larunbat arratsaldetan. Finala oraindik zehaztu gabe badago ere, San Pedro besten barnean jokatu da.

Mendi abesbatzak 10 urte

Mendi Abesbatzak 10 urte bete dituela eta zenbait ekitaldi antolatu ditu. Lehenbizikoa apirilaren 8an egindako Udaberriko jaialdia izan zen. Gasteizko Samaniego abesbatzak emaldia eskaini zuen meza ondoren elizan. Maiatzaren 6an Mendi Abesbatzak berak kontzertua eskainiko du 20:45etan elizan, meza ondoren. Ekainaren 3an hargarren urteurrena ospatzeko kontzertu berezia eskainiko dute Doneztebeko Mendi, Hendaiako Entzun ea Ereñozuko Ozenki abesbatzek ordu eta leku berean. Txistulariak ere ari tuko dira.

Pitti
eskabazloak
Tel: 616 513 491

APARAN, S.A.
BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate aruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagariak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab.

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

Belarra
jatetxea
948 450 306
Amezdia karrika
DONEZTEBE

larunbatero donezteben

giro paregabea

apirilak
29

GAUPASA

BATUGAITU
PERKUSIO
TALDEA

ZOZKETAKII!
2 pertsonendako
bidai bat
zozkutatutako da



JAIETXETAN GAZTEENTZAT
MENU BEREZIAK

Aritzema jatetxea... 940450443
Belarra jatetxea... 940450306
Hilarrin jatetxea... 940450003
Hostal Mx. Auzotilla... 940450098
Hostal Mx. Nautzorroba... 940450043
Kortx 24 guretxetxegia... 940450787

BEER
OSTATUA

Bar
IRRINTZI

Bar
OSTATUA

SHANTI
OSTATUA

Bar
SABETE

Bar
OSTATUA

MAYLIN
OSTATUA

Bar - ostal
IRIBILA

ZELAI - TXIKI

ZURGINDEGIA



*Altzari klasikoak
nahiz modernoak*

Nahi duzun
neurrira eta
estilora;
**gaztaina,
haritza,
intxaurra,
gerezia**

Errota, 13
Iraetako Industrialdea
20740 Zestoa
Tfnoa: 943 14 75 32
Fax: 943 14 78 65
www.zelaitxiki.com



DONAMARIA

Gehienez 109 etxe berri egiten ahalko dira herrian

Honela ageri da onartu den Udal Hirigintza Planean

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuko Ingurumena, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Departamentuak Donamariako Udalak aurkeztutako Hirigintza Plana behin betikoz onartu berri du. Plan honen arabera, gehienez 109 etxe berri egiten ahal dira eta horietatik gehienak bi familiako etxeak izanen lirateke.

Uxarrea auzoan 31 eraikin egiteko aukera aurrikusi da. Horietatik gehienak bi familiakoak baldin badira ere, lautan hamabi etxebizitza egiten ahal dira eta bertze hamekatan 18 etxebizitza. Igurin auzoan lau etxe berri egiteko baimena ematen ahal da, gehienez zortzi etxebizitza. Artze auzoan 23 eraikin berri egiteko aukera ikusten da eta gehienez bi familiakoak izanen direnez, 46 etxebizitza izanen dira. Donamariako Bentan lau eraikin egitea aurrikusi da, hiru bi familiakoak eta bat famili bakarrekoa. Planeamendu berriaren arabera, Askarragan 11 etxe eginen lirateke eta guziak bi familiakoak direnez, gehienez 22 etxebizitza izanen dira. Gaztelun, azkenik, 36 etxe egiteko modua izanen da, guziak bi familiakoak, 72 etxebizitza guzira. Hirigintza Plan berriaren arabera, etxe berri guzietan, gehienez behei-

tiko solairua eta bi gehiagoko egiten ahal dira. Hirigintza Plan berri honek ez du epe mugarik, eta bakar bakarrik ordezkatzeko ahal da maila bereko edo gehiagoko bertze hirigintza dokumentu bat onartzen bada. Kasu hori gerta daiteke biztanlegoak

planean aurrikusitakoa gainditzen bada, planean onartutakoaren %70a egina bada edo udalez gaindiko bertze plan bat onartzen bada.

ARTXIBOKOA

Uxarrea auzoan 31 etxe berri egiten ahal dira, gehienak bi familiakoak.



DUPLEX ETA APARTAMENTUEN SALMENTA OROÑOZ-MUGAIRIN - BAZTAN

Auzurte pribatua, igerilekua, paddel, frontoia eta berdeguneekin.
Neurri ezberdinetakoak 1, 2 eta 3 logeekin 125.050€tik aurrera (+BEZ).

Eraikitze lanetan ari dira.

NATURAREN ERDI ERDIAN
BERTIZKO NATUR
PARKEAREN PAREAN
Inufetik 25min. bakarrik,
Irundik 30min. eta Donostiatik 40min.

HAIZEA

Haizea 2002 Karrobide 10 behea • Vilava-Atarabia (Nafarroa) 948 361 083
info@haizea2002.com • www.haizea2002.com

nolako ikasketak, halako etorkizuna

Lara Arruti,
Ikus-Entzunezko Komunikazioko ikaslea.

*"Komunikazioaren gizartean bizi garenez,
ezinbestekoa komunikazioaren legeak ezagutzea"*



Zeure etorkizunari begira

BIDASOA Goi-mailako Berariazko Lanbide Heziketa Institutuak Industria Sektoreko Prestakuntza Zikloetan eskaintza zabala du ikasketak bukatu ondotik lana izateko. Izan ere, gure ikastetxeko ikasleen %95 inguru, espezialitate guztietan, lanean hasi da ikasketak bukatu eta berehala.

Era berean, gure institutuak prestakuntzarako Europar Programe-

tan parte hartzen du aktiboki, eta horien artean Leonardo da Vinci Programan. Honi esker, gure ikasleek badute Europako enprestan praktikak egiteko aukera bikaina.

Hedadura desberdina izan dezaketen Berrikuntza Proiektuak ere garatzen ditugu, ikasten diren espezialitateekin lotura dutenak.

Gure ikastetxeko ikasleen %95 inguru, espezialitate guztietan, lanean hasi da ikasketak bukatu eta berehala.



Elektronika industrialia mikroprogramablea



Elektrizitatea



Elektronika eta Telekomunikazioak



Eraikuntza eta obra zibila



Mekanika



Zurgintza eta altzarigintza



Proiektu mekanikoen garapena

ATE IREKIEN JARDUNALDIAK

2 asteartea

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

18:30etan

3 asteazkena

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

18:30etan

MAIATZA



Elizatxo, 10
20303 IRUN (Gipuzkoa)
Tfnoa.: 943 666 010
Faxa: 943 615 380
secretaria@fbidasoa.org



1955/56

2005/06



ESKAINNTZA PARTZIALA

2005/06 ikasturte honetan hainbat Ziklo ari gara ematen, eta horien artean Mekanizazio Ekoizpena, Eraikuntza eta Obra Zibila, eta Telekomunikazio eta Informatika Sistemak.

Datorren ikasturterako ziklo hauek berak segituko dira ematen, eta saiatuko gara eskaintza zabaltzea Araututako Prestakuntzaren barnean gure ikastetxeak ematen dituen beste zikloetara ere.

Ikasketak eta lana aldi berean eginez Titulua lortzeko aukera ematen du Eskaintza Partzialak, klaseak arratsaldeko 6etatik 9etara ematen baitira.

Aukera honetaz baliatzen ahal dira 21 urte baino gehiago duten pertsona guztiak. Horretarako, 2 urteko lan-esperientzia eta eskatzen den Titulazioa frogatu behar dute.

**Ikasketak eta
lana aldi berean
eginez Titulua
lortzeko aukera
ematen du
Eskaintza
Partzialak**

ESKAINNTZA AKADEMIKOA A eta D ereduetan

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazioa

ZURGINTZA ETA ALTZARIGINTZA

- Neurritza egindako arotzeriaren eta altzarien fabrikazio eta instalazioa

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak, domotikoak eta energia-berriztagarriak.
- Kontsumorako ekipo elektronikoak

SARTZEKO BEHAR DA:

DBH, IEEko 2. maila, BBB-2, LH1 edo baliokideak
18 urtetik gorakoak frogatu bidez

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazio ekoizpena
- Proiektu mekanikoen garapena

ZURGINTZA ETA ALTZARIGINTZA

- Arotzeriako eta altzarigintzako produktuen garapena.

ERAIKUNTZA ETA OBRA ZIBILA

- Hirigintza proiektuen garapena eta topografia-eraiketa

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Instalazio elektroteknikoak, domotikoak eta energia berriztagarriak
- Telekomunikabide eta informatika sistemak
- Produktu elektronikoen garapena

SARTZEKO BEHAR DA:

Batxilergo LOGSE, LH-II, UBI edo baliokideak.
20 urtetik gorakoak frogatu bidez

PREINSKRIPZIO EPEA Ekainaren 1etik 7ra
MATRIKULAZIO EPEA
Ekainaren 30etik uztailaren 6ra

KULTURA

Xabier Silveirak laugarren aldiz irabazi du Nafarroako Bertsolari txapelketa

Puntu erdiko aldea atera zion Estitxu Arozenari Elizondoko finalean

ttipi-ttapa

Apirilaren 1ean egin zen Nafarroako bertso txapelketaren finalean Xabier Silveira lesakarra berriz ere hobereña izan zen eta laugarren aldiz txapela jantzi zuen. Elizondoko lur dantzalekuan jokatu zen saioak arrakasta handia izan zuen. Orotara 900 bat lagun bildu ziren. 1936an, Nafarroako lehendabiziko txapelketa Elizondon erabaki zen eta 70 urte beranduago herri berean egin zen finala. Taulen gainean berriz, momentuko Nafarroako zortzi bertsolari hoberenak, Estitxu Arozena, Erika Lagoma, Julen Zelaieta, Julio Soto, Jon Barberena, Etxabe, Iñigo Olaetxea eta Xabier Silveira. Finalean zortzietatik bortz lesa-



ARGAZKIA: ONDIKOL

Xabier Silveirak bere amari eskaini zion buru gainean jantzi duen laugarren txapela, bertso hunkigarri batean.

karrak ziren eta txapela horietako biren artean jokatu zen. Xabierrek 413 puntu lortu zituen eta Estitxu, berriz, iaz

bezala bigarren gelditu zen puntu erdira: 412,5 eskuratu zituen. Julen Zelaieta joan den urtean bezala hirugarren bu-

katu zuen 407,5 punturekin. Laugarrena Iñigo Olaetxea izan zen 398,5 punturekin. Bosgarren tokirako lehia polita izan

zen, Jon Barberena eta Etxaberen artean. Azkenean lehena puntu erdi batez aitzinatu zen, 394 puntu lortu zituen eta bertzeak 393,5. Zazpigarrena Erika Lagoma izan zen eta zortzigarrena berriz Julio Soto, 376 eta 366,5 puntu eskuratu zituzten. Bi hauek lehendabiziko aldia zuten Nafarroako finalean eta maila polita erakutsi zuten. Bertso saio polita izan zen, giro ezin hobea, elkarren arteko pikeak, umorea, abilezia, sentimenduak, denetarik entzun ahal izan zen.

Silveirak poto egin zuen bere azken ariketan, kartzelako azken bertsoan eta horrek, txapela galarazi zion ia. Amari eskaini zion, bertso hunkigarri batekin.

lanbideheziketa

KALITATEKO PRESTAKUNTZA · ENPRESARENTZAKO BERMEA · LANBIDE ETORKIZUNA

IZENA EMATEKO EGUNAK

Erdiko Maila, apirilaren 24tik maiatzaren 5era

Goiko Maila, maiatzaren 29tik ekainaren 6ra



Nafarroako
Gobernua



IAITZ
2008

ARKUPEAK

Gimnasia besta apirilaren 20an egingen da Berako kiroldegian

Ondotik bazkaria izanen dute Zalain eta Zubiondo jatetxetan

ttipi-ttapa

Arkupeak erretiratuen elkarteak urtero egiten duen gimnasia edo soinketa erakustaldia aurten ere Berako kiroldegian egingen da apirilaren 20an. Eguerdiko 12:30etan hasiko da herrietako talde ezberdinen erakustaldia.

Ondotik, 14:00ak aldera, autobusak aterako dira kiroldegitik Zubiondo eta Zalain jatetxetara, hauetan egingen baita bazkaria 14:30etan. Bietan menu berdina izanen dute: urdaiazpikoa, pate eta fritoak: piper beteak, arrain zopa, legatza erromatar erara, sorbeta, azpizuna guarnizioarekin, txanpaina (5 lagunendako botil bat), eta moka tarta txokolatearekin, dena ura, ar-



ARTXIBOKOA

Goizueta, Bera, Leitza, Elizondo, Urdazubi eta Sunbillako gimnasia eta yoga taldeak arituko dira Berako kiroldegian, apirilaren 20ko erakustaldian.

doa, kafea eta kopa normalarekin hornitua. Bazkalondan, 17:30etatik 20:00etara, dantzaldia izanen da eta gero autobusak herrietara bueltan abiatuko dira.

Izen-ematea apirilaren 1etik 8ra egin behar zen eta orduan jakinaraziko zitzaien parte hartzailei autobusak herri batuetatik noiz abiatuko ziren. Soinketan aritu-

ko diren bazkideek ez dute deus ordaindu beharrik izanen. Gainerako bazkideek eta soinketa egin baina bazkide ez direnek 30 euro ordaindu beharko dute.

ITUREN

EHNA tramitatzeko aukera izanen da igandean

ttipi-ttapa

Igande honetan, apirilak 16, Euskal Herriko Naziotasun Aitorrena (EHNA) tramitatzeko eguna izanen da Iturenen, Herriko Etxeko arkupean, goizeko 10:30etatik 14:00etara. Horretarako, aitzinetik udaletxean padori agiria eskuratu behar da eta, gero, hiru argazki eta 15 euro eraman behar dira. Behin agiria tramitatzen denean, norbera etxera bidaliko da posta bidez.

PINTURAK

Esmalteak · Bernizak · Lasurea urpintura · Margo klase guziak

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea

BONDEX urpintura
Esmaltea eta pintura plastiko ekologikoa

Zalain auzoa
Aceralia fabrikaren parean
Tel: 948 630 240
Mug: 627 622 333
BERA

PINTURAS

PIKABEA MOLINERO

Ginko

M. Karmela Tolosa

Trabaketa gurea

lortzen duen
araberriko
arabeko eta arabek
arabekoa

31760 Etxalar (Nafarroa)
Telefonoak:
917 350 025 - 947 994 967

LATSABA

SONUA eta BUKA:
Jaink, ekitaldiak, feriak,
erakundeak, txanpak, ezkerrek,
kontzertuak, mugimenduak, bideo,
multimedia, dokumentuak,
zine emanaldiak...

IKUS-ENTZUNEZKO
TRESNERIA

Latsabapinturas.com.net

Telefonoak: 948 637 546
Mug: 609 477 277
LESABA

HEZKUNTZA

Euroscola lehiaketan parte hartu du Berako Toki-Ona Institutuak

Langile eta langabetuentzat ikastaroak ere antolatu ditu

ttipi-ttapa

Berako Toki-Ona Institutua bertze urte batez parte hartu du Euroscola 2006 lehiaketan, Nafarroako bertze zortzi ikastetxerekin batera. Lehiaketa hau Europako Parlamentuak antolatzen du, ikasleen artean Europar Batasunaren eta bere instituzioen ezagutza bultzatzeko. Hamahirugarren aldia da antolatzen dela, aurtengoan "Europar Batasuna munduan: kanpo gaietarako politika eta garapenerako laguntza" lemapean.

Lehiaketa 13 eta 18 urte arteko ikasleei zuzendua da, hau da, Bi-

garren Hezkuntza eta Gradu Erdiko Formakuntza Zikloetakoei. Internet bidez parte hartzen da lehiaketan, ezagutza proba batzuen bidez puntuak pilatzen dira. Gero, elkartasun proba gainditu beharko dute eta azkenik, Europako Batzordearen ekimenekin lotutako ekitaldi bat egin behar dute taldeek. Guzira 800 bat talde parte hartzen ari dira Euroscolan.

IKASTAROAK

Bertze aldetik, 2006ko ikastaroetan parte hartzeko izen emateko epea ireki du Toki-Ona institutuak api-



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Lanbide Heziketako ez ohiko saria Lekaroz-Elizondo Institutuko Ines Zelaieta ikaslearentzat

2004-2005 ikasturteari dagokion Lanbide Heziketa eta Arte Plastikoak eta Diseinuko ez ohiko sariak banatu ziren martxoaren 29an. Erdi Zikloko saridunen artean, Lekaroz-Elizondo Institutuko Ines Zelaieta Erasun beratarra zegoen.

rilaren 12a bitarte. Ikastaro hauek Nafarroako enpresetan lan egiten duten langileentzat, Nafarroan lan egiten duten autonomoentzat, azkeneko urtean Nafarroako enpresetan lana galdu duten langabetuentzat eta azken urte honetan Nafarroan lan egiten duten autonomoentzat zuzenduak daude eta doanekoak izanen

dira, Nafarroako Enplegurako Zerbitzuak sustatua eta Nafarroako Gobernuak lagundutako etengabeko formakuntza ikastaroak baitira.

Honela, pneumatika eta elektroneumatika, 40 orduko ikastaroa egiten da maiatzaren 8tik 12ra eta 15etik 19ra, arratsaldeko 4etatik 8etara.

Material erresistentzia, 20 orduko ikastaroa, apirilaren 24tik 28ra egiten da, goizeko 9etatik 1etara.

Modu berean, mugetako komertziorako frantzes hastapen ikastaroa ere egin gogo dute Toki-Onan. 50 orduko ikastaroa izanen litzateke, oraindik zehaztu gabeko egun eta ordutegian.



Zure lan aukerak kezkatzen zaitu?

Industria Ekipoen Mantenimenduan Goi Mailako Heziketa Zikloa

Zikloetako ikasle guztiak, **100%ak**, lana lortu dute inguruko enpresetan praktikak bukatu ondorengo bi hilabeteren barnean. Titulu hau erdietsi ondoren zuzenean sar zaitzake unibertsitateko karrera teknikoetan.

Informazio gehiago: www.pnte.dfnavarra.es/iesbera
Toki Ona BHI
 Eztegara pasealekua 34, 31780 Bera
 Tel. 948 625 000



Ikasketak. Hezkuntza sistema:



GOIZUETA

Hasierako onarpena eman die Udalak Arau Subsidiarioei

Alegazioak aurkezteko hilabete bateko epea irekiko da orain

Esteban AROTZENA

Apirilaren 5ean egin dako batzar berezian hasierako onarpena eman zien Udalak aho-batez Arau Subsidiario berriei. Ondorengo egunetan aterako dira berriz, legeak agintzen duen bezala, prentsako eta Nafarroako Aldizkari Ofizialeko iragarkiak, eta orduntxe zabalduko da alegazioak aurkezteko hilabeteko epea. Arkitektoek alegazioak aurkeztutakoan, berriz Udalen mahai gainean jarriko dira Arauak, korporazioak behin behinako onarpena eman diezaien, horrela baldin badagokio. Gero, Iruñak

eman beharko die azken oniritzia Arauak behin betikoak izan daitezten.

Etxebizitzak gazteentzat

Gai honekin nola baiteko lotura eduki dezake ondoren aipatuko dugun berriak: sinatzaileek jakinarazi digutez, etxebizitzaren arazoak kezkatuak dauden gazte talde batek idatzia luzatu dio Udalari «egoera negargarrian» dagoen gain honetaz hitzegin ahal izateko bilerara eskatuz. Sinatzaile guztiak herritarrik dira eta herrian bizi nahi dute, baina azken hamar



ARGAZKIA: DIARIO VASCO

Real Madrili konfidantza osoz aurre egin ahal izateko Goizuetara etorri ziren egunpasa indarberritzera Errealeko jokalaria apirilaren 5ean, Joxe Mari Bakero herriko entrenatzailea buru zutela. Umore Onan bazkaldu zuten eta kategoria mantentzeko animoz daudela erakutsi zuten.

urte hauetan, ez ekimen pribatuak ezta Udalak ere, ez du pisurik eraikei. Egoera honek kanpoan pisuak erostera eraman omen ditu gazte asko, eta horren ondorioz, despopulazio ikaragarria jasan du herriak, idazkiaren sinatzaileek diotenez.

Bi eskakizun nagusi eramanen omen ditu talde honek Herriko Etxe- ra: lehenengoa, etxebi-

zita sozialen politikari udalak lehentasun osoa ematea ahal den abudoen eraiki ahal izateko. Eta bigarrena, etxebizitza bat nahi duten gazte guzietan eskubide hori ziurtatuko zaiena konpromezua hartuaraztea Udalari.

PLAZENEKO ALORRA

Plazeneko alorrean Babes Ofizialeko 12 etxebizitza egiteko as-

moa duela Udalak gauza jakina da dagoeneko. Elizari lur puska hori erosi zitzaionean hasitako prozesu tekniko Udalak nahi baino gehiago ari omen da luzatzen, baina laister berri onak emateko moduan izanen direla esan ziguten Herriko Etxean. Herriarentzat duen garrantziarengatik ttipi-ttapa gain gaitetik jarraituko du prozesu hau.

ARESO

Joserra Aranalde herritarra lan istripuan hil da Madrilen

Makina zati bat gainera etorri zitzaion

Juana Mari SAIZAR

Joserra Aranalde, 41 urteko Aresoko gizasemea lan istripua izan ondoren, hil egin da. Berak manejatzen zuen makinaren hiru besokako bat hautsi ondoren, bere gainera etorri zitzaion, eta bertan zantapatuta gelditu zen. Badirudi, Madrilgo herririka batean gertatu zela.

Enpresa hau demoliziotara dedikatzen da, eta horretarako pisu eta luzera handiko makinariak erabiltzen dituzte. Badirudi zeozer oso arraroa gertatu zela eta oso gutxietan ikusi ahal izan dena, puntan ditzuten guraizi handiak puskatu eta bere gainera zuzen zuzenean erori ziren.

Hegaztien gripea

Hegaztien gripea dela eta Nafarroako Gobernua herritar guztiei eskatzen die hegazti guztien zentsoa egitea norbere udaletxean. Han emango duten inprimakian jarri beharko da zer motatako hegaztiak ditugun etxean eta kopurua.



ARTXIBOKOA

Etxeko hegazti guztien zentsoa egin behar da.

Okerrak zuzentzen

Ludotekaren proiektuaren barnean aukeratu bat da joku kooperatiboa. Hori erabili ahal izateko Kometako bazkide izan behar da eta oraindik ez dute horrelakorik erabaki udalak eta Euskara zerbitzuak, ludotekako antolatzaileak.

LEITZA

Kubako Los Arabos herriko behartsuak laguntzeko azoka antolatu da aurten ere

Duela hiru urte 2.400 euro lortu ziren eta Kuban moja dagoen Juanita Zabaletari bidali

ttiipi-ttapa

Duela hiru urte izandako arrakasta ikusita, aurten ere Kubako iparraldean dagoen Matanzas eskualdeko Los Arabos herriko behartsuei laguntza eramateko azoka antolatu dute herriko 15 emakumek, karrapean duten lokalean. Hemen lortzen den arropa, dirua eta beste-lakoak banatzeaz Juanita Zabaleta, Kuban bizi den moja leitzarra, arduratuko da. Juanita Zabaletak 71 urte ditu eta 1998az geroztik Kuban ari da lanean, pobrezia egoera larrian dauden 200 bat gaixo eta preso-en senideak zaintzen dituen kongregazio batean. Gaixoak zaintzeko botika gutxi dituzte eta haiek garesti.

Egoera onean dauden jantzi, oinetako, liburu edo gisako gauzak uzten ahal dira eta beranduago prezio sinbolikoetan salgai jarriko dira. Duela hiru urte 2.400 euro lortu ziren eta aurten marka gainditzea es-



ARTXIBOKOA

Inaxio Perurenak 225 kilokoa esku bakarrarekin altxatu du
Inaxio Perurenak ez zuen hutsik egin eta martxoaren 25ean Leioan 225 kiloko harri zilindroa jaso zuen bizkarrera esku bakar batekin. Inaxiok, etxean baino hobekiago berdindu zuela adierazi zuen eta gustora ageri zen. 23 urte bete gabe orain arte inork egin ez duena egin zuen.

Gurasoak drogei aurre eginez

Drogen arazoari aurre egin asmoz, guraso talde bat lanean hasi da. Oraingoan, parrokiaren baita hitzaldi eta tailer egiten ari dira. Al-

pero dute, zaila izanzen dela badakiten arren. Emakume haiek astelehenean larunbatera, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara eta igande eguerdiko 12:00etatik 13:00etara arituko dira lanean.

fonso Arteaga, Nafarroako Gizakia Helburu erakundeko teknikaria da maiatza bitarte iraungo duten tailer hauen arduraduna. Berekin batera, osasunean, drogan eta psikologian adituak diren hainbat es-

pezialistek ere hartuko dute parte.

Eneko Aizpuru libre

Eneko Aizpuru martxoaren 30ean aske utzi zuten. Aranjuezeko espetxean preso izan da joan den urteko uztaiaz geroztik. Egun osoan kartzel atarian esperoan egon ondotik, ilunabarreko zortziak aldera izan zuten senideek Eneko besarkatzeko modua. Eneko Aizpuru Segiren aurkako auziarengatik zegoen espetxean eta berekin batera, Oier Oa eta Garikotz Mujika ere aske utzi zituzten. Zubimendik espetxean segitzen du.

Gasoil ixuria Gorritzaranen

Gorritzaran errekan, gasoil ixuria gertatu zen apirilaren 2an, Amazabaleko zubi inguruan. Ixuriaren berri izan eta Foruzaingoko patrulla bat gerturatu eta ikerketak egin zituen, ixuriaren jatorria argitzeko.

Ark_b arkitektura bulegoa
Celia Lana Ronz
Huarle Gotzal 7 - 31880 Leitza - 645006478 tel
Eraikuntza · Hirigintza · Udal-aholkularitza

GAZTANDEGIA
LIZUN
Etxeko Ardi Gazta
Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

luis cestau baraibar
arkitekto teknikoa
leitza 607204485
lucésba @ msn.com

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa • saneamendua • gasa
© 948 510086 / 510156 fax: 948 610856 LEITZA

BAZTAN

Elbeteko Gamioako askak eztabaida piztu du herritar eta Udalaren artean

Aska ttikitze baimena eman du Udalak, batzarrari kasurik egin gabe

ttipi-ttapa

Iaz Elbeteko Gamioako jabeak, bere etxe-ko larrainaren aitzinean dagoen aska txikitze baimena eskatu zion Balleko Udalari, garagera kotxea zuzenean sartu ahal izateko. Elbeteko alkateak, horren berri izan zuenean, batzarre batera deitu zituen herritarrek. 19 barride proiektuaren aurka azaldu ziren eta 5 alde. Hala jakinarazi zitzaion Balleko Udalari. Halere, Udalak bere gestioekin aitzinet egin zuen. Horrela urriaren 21ean egindako batzarrean askaren desafektazioa onartu zuen, hau da, ordurarte askak ondare publikoaren izendape-na zeukan, eta erabaki horren ondotik ondare patrimoniala izatera pasatzen. Ondare publikoa izanik ezin zen inolako modifikaziorik egin askaren egiturari.

Barrideek, egoera ikusita, sinadura bilketari ekin eta azkenean 64 aurkeztu zituzten



UTZITAKO ARGAZKIA

Elbeteko Gamioa, eztabaida piztu duen aska larrainean duela.

udalean proiektua gelditzea eskatuz. Baina honek ere ez du deus-tarako balio izan eta azkenean Udalak askaren moldatzea onartu egin du bere azken batzarrean, EAKo aldeko botuekin eta UPNren kontrakoekin. Askak 5 metro koadro izatetik 3 metro izatera pasako da, ez badira alegazioak onartzen.

Herritarren kezka na-

baria da, obra hau «kapritxo hutsa» dela uste dutelako. Etxeak jadaratzen badauka kotxeentzako sarrera zabala, eta sinatu dutenen ustez, «ez dute zertan 80 urte eduki ditzakeen aska bat moldatu behar». Herriak egin zuen batzarrean aska modaltzea onartu zen, auzolanean, baina betiere bere neurriak mantenduz eta itxura gehiegi aldatu gabe.

Udalak hartutako erabakian, Elbeten inork ez duela azierarik aipatzen zen eta hori gezurra dela erran dute herritarrek, «oraindik ere 6 etxetan ganadua izan badagoelako». Elbeteko batzarrean «barriden arteko liskarrak» berterik ez zirela izan aipatu zuen EAKo zinegotzi batek eta horrek ere arrenkura sortu du elbetearren artean.

FLASH

Irurita-Elizondo saihesbideaz

Irurita-Elizondo saihesbideko lanen atzerapena ere eztabaida sortu du Baztango Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren artean. Herrilan Departamentutik, balleko udalari egotzi diote atzerapena, aitzineko korporazioarekin adostutako trazatuan aldatetak sartu dituelako. Florentino Goñi EAKo zinegotziak, bere aldetik, «duela urtebete saihesbide horretarako aurrikusiak dituzten hiru alternatibak ofizialki bidaliko zizkigutela erran ziguten eta oraindik ez dira ailegatu» adierazi du. «Nola erran onena, informazioa ahoz bakarrik baldin badugu?».

Oharrizko bide bazterra moldatzeko eskaria

Baztango Gobernu Batzordeak, UPNko udal taldearen eskariz, Lekearoko Oharriz auzoko errepide bazterra moldatzea eskatu du. Ehun metroko zati bat arras arriskutsua da ibilgailu eta oinezkoendako, Maitonea etxearen eta azienda granjaren artean. Baztan erreka ere ondoan du errepidean, zati batzuetan inolako babesik gabe.

Eskisaroi
Jaimo Urutia
Tfnoa: 948 580 013
ELIZONDO

BURKAITZEA
ostatu
erretegia
Zugleramundiko bidea, 3 km
948 596 280 - URDAZUBI

FRRETEGIA ORDOKI LIKOREAK
Parrilan egindako haragi eta arrainak
Tel. 948 453 411 Fax. 948 453 378 - ARIZKUN

ELIZONDON EREKI DUGU!
abartan
CERRAMIENTOS • ITXITURAK
PVC eta ALUMINIOA
ateak • leihoak • kontraleihoak
manparak
zeramikak (fabrikako prezioetan)
kontsumo guburko kalefakzio elektrikoak
Santiago 56, bajo • 31700 ELIZONDO
Tel. 948 561 152 • 657 264 025 • 696 970 725
maxena@2terra.es

I.E.S. LEKAROZ ELIZONDO B.H.I.

Bigarren Hezkuntza Institutua



LEKAROZ

Uhartea auzoa, z/g
31795 LEKAROZ (Baztan)

☎ 948 58 18 03

☎ 948 58 18 36

✉ ieslekar@pnte.cfnavarra.es

🌐 <http://www.pnte.cfnavarra.es/-ieselizo/>



ELIZONDO

Diputazio Etorbidea, z/g
31700 ELIZONDO (Baztan)

☎ 948 58 18 05

☎ 948 58 18 40

✉ ieselizo@pnte.cfnavarra.es

🌐 <http://www.pnte.cfnavarra.es/-ieselizo/>

IZEN EMATEA:

- ✦ DBH eta Batxilergoa 2006ko apirilaren 24tik ekainaren 6ra
- ✦ Erdi Mailako Lanbide Heziketa 2006ko apirilaren 24tik ekainaren 6ra
- ✦ Goi Mailako Lanbide Heziketa 2006ko maiatzaren 29tik ekainaren 6ra
- ✦ Lanbide Hastapena 2006ko ekainaren 5etik 28ra

OHARRA.- Informazio gehiago nahi izanez gero,
jar zaitezte gurekin kontaktuan.

BAZTAN

Alduderako errepidea ez egitea erabaki du Junta Generalak

Hamalau juntakide kontra eta hamar alde agertu ziren

ttipi-ttapa

Baztan eta Aldude lotuko litzuzkeen errepidea ez egitea erabaki zuen Junta Generalak, martxoaren 27an egindako ez ohiko batzarrean. Bailei eta Belaun lepoetatik pasatuko litzatekeen bideari buruzko iritzia eman behar zuten juntakideek eta 14 proiektuaren kontra azaldu ziren eta 10 alde, abstentzio batekin.

Jakina denez, duela hiru urte ezagutzera eman zen Baztan eta Aldude arteko errepidearen proiektua. 550.000 euroko aurrekontua zuen eta %90a Europako Interreg programatik eta Nafarroako Gobernutik ordainduko litzateke eta gainerakoa Udaletik. Hasieratik proiektu honen aurkako iritziak izan ziren eta Belaunalde Bizi Herri Plataforma ere sortu zen.

Gan den martxoaren 10ean egindako bilera

batean, Interreg-eko ordezkariak proiektua egin behar zuten edo ez erabakitzeko eskatu zioten Udalari. Teknikariak, Udalak hasiera batean onartutako trazatua, lurrutabarrengo Bordatik pasatzen zena, baztertu zuten. Honela, aukera bakarra Bailei eta Belaun aldetik pasatzen zena zen, hasieratik Herrikan Departamentuaren babesa zuena. Baina hasieran aipatu bezala, Junta Generalak baztertu zuen, ingurumenean duen eraginarengatik eta udalarentzat mantenimendu gastu handiak ekarriko dituelakoan.

Udal aurrekontuan 620.000 euro bideratuak zeuden proiektu honetarako. Orain diru hori bertze proiektuetan inbertituko dela jakinarazi du EAko Iñigo Iturralde. UPNren ustez, aldiz, «honek EAren planifikazio eza erakusten du berriz ere».



ARGAZKIA: ONDIKOL

Elizondoko Administratiboko ikasleak Bartzelonako Enpresa Simulatuen VII. Azokan

Lekaroz-Elizondoko BHIko Administrazioa eta Finantzetako Goi Heziketa zikloa ikasten ari diren 14 ikaslek eta bi irakaslek Bartzelonan ospatu den VII Nazioarteko enpresa simulatuen azokan parte hartu dute joan den martxoaren 22, 23 eta 24ean. Aurtengoan, enpresa simulatuen azoka Kataluniako Expodidactica erakusketaren barne antolatu da. Azokaren helburua enpresa simulatua didaktika metodologia alternatibo eta desberdin gisa aurkeztea da. Azoka hau Fira Bartzelonako Montjuic aretoan ospatu da. Aurten parte hartu duten ikasle eta irakasleak honako hauek dira: Lesakako Amaia Ordoki eta Iker Tainta; Sunbillako Iruñe Agirre eta Maite Ibarra; Urrozko Ana Matxinena; Elizondoko Idoia Elizegi, Ane Dendarieta, Mikel Larregi eta Jon Zaldúa; Arizkungo Nekane Etxeberria eta M^a Jose Maritorea; Berako Ines Zelaia; Doneztebeko Andoni Bertiz, Rakel Ordoki. Eta irakasleak: Maite Ariztegi eta Arantxa Iriarte.

Paularenan aparkalekua egitearen kontrako 300 sinadura bildu dituzte Elizondoko gurasoek

Elizondoko gurasoek Paularena inguruan aparkalekua egitearen aurkako 300 sinadura inguru aurkeztu dituzte Balleko Etxean. Sinatu dutenek, elizaren gibealeko aldeko eremu horretan dauden haur-parkea eta berdegunea mantentzea eskatu du-

te. EAk, bere aldetik, aparkalekuak ez duela parkean eraginik izanzen adierazi du: «Proiektuak, erabiltzen ez den belagi bat eta espaloi handi bat hartzen ditu, jolas-parkea ukitu gabe». 90.000 euroko aurrekontua du aparkaleku proiektu honek.

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostataua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Brancho Inate Karrika
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

Lanbide heziketa lanerako gubia

Kudeaketa Administratiboa
Erdi Mailako Zikloa

NORREKARO: Administrazio, Marketing, Ingurumen, Informatika eta Komunikazioak, eta beste 14 lanbide eremu garrantzitsuak.

SARBIDORAKO BALDINTZAK: 200k Euroko prezioa, I+D+i eta publikoa.

GRUPTUELA: Osoa 3.000ak 21 Osoa.

PLAN MALDUA: 12 urteko iraupena eta 1000ak praktikak.

LES LEKAROZ ELIZONDO KILL

ROSA BELZUNEGI
PSIKOANALISTA

Kontsultarako eskatu ordura

☎ 948 272011 (IRUÑA)
☎ 948 580975

Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO

ARANTZA
Zurgindegia

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontuak konpromisoarik gabe

Jose Miguel Zubizarain
948 581 807 - 948 581 853
Baztan - BAZTAN

apirilak **13** osteguna

8€
+kontsumizalea 01:00

DISKOTEKA

LEHEN 250ENTZAT KAMISETA BAT DEBALDE



apirilak **14** ostirala

8€
+kontsumizalea 01:00

DISKOTEKA

LEHEN 250ENTZAT KAMISETA BAT DEBALDE

apirilak **15** larunbata

8€
+kontsumizalea 01:00

LURDJOTAK

AD7

DJ NASH DJAK GOGO'S...



apirilak **22** larunbata

8€
+kontsumizalea 01:00

SEMAFORO

BESTA

XORROXIN IRRATIA
25.000€
URTEURRENA

apirilak **29** larunbata

22:00

OSKORRI

DISKOTEKA
SMSak, BIDEOAK, GIROA, MUSIKA...

8€
+kontsumizalea 01:00

ZUGARRAMURDI

Eskual Titiriteroen seigarren Topaketa apirilaren 22 eta 23an egingen da

Kilimiliklik talde ohiaren bideoa ikusgai izanen da igandean

ttipi-ttapa

Eskual Titiriteroen 6. topaketa apirilaren 22 eta 23ko asteburuan ospatuko da, eta larunbata goizeko 11tan hasiz eta igandean arratsaldeko 6etan finituz, 13 talde ikusteko aukera izanen duzue. Emanaldiak Ospitalean, "Sorginak" antzokian eta karriketan izanen dira, denak doan. Honetaz gain larunbatean Ospitalean "Centro de Títeres" erakusketan izanen da eta haurrentako tailerrak.

Eta berezitasun bezala, igandean arratsaldeko 6etan "Kilimiliklik" talde ohiaren "Sorginak" antzezlanaren bideoa eskeiniko da.

Hitzaldi-argazki emanaldia

Apirilaren 2an Ospitaleko antzokian hitzaldi-argazki emanaldia izan zen. "Follow the wo-

men" ("jarraitu emakumei") taldekoak diren Zuriñe Arruazu eta Nerea Marinek bizikletaz Palestinara egindako bidaia aurkeztu zuten. Bidaia honetan hainbat naziotako 130 emakumek parte hartu zuten (5 eskaldun), bizikletaz Siria, Libano, Jordania eta Palestina kurrituz. Martxa hunen helburua nazio horietako emakumeen egoera ezagutzea izan da eta aldi berean gurrera ezagupen hori ekartzea.

Atxuria-Kaxkoko gosaria

Apirilaren 3an ospatu zen "Atxuri-kaxkoko gosaria"ren bigarren edizioa. Aldi huntan 24 lagun elkartu ziren Atxuriako kaxkoan, batzuk lbaineta aldetik ganak, bertze batzuk Urbiatik, eta haurrak bide erditik



ARGAZKIA: EUSKAL TELEBISTA

ETB-1eko "Mihi luze" programan parte hartu zuen gure inguruko taldeak izigarri saio pullita burutu zuen eta erdi-finaletara pasatzea lortu zuen. Eukene, Ellande eta Beñat "Larun" izenakin aurkeztu ziren eta apirilaren 21ean jokatuko dute bigarren lehia. Hunen grabaketa ikustera gan nahi duenak izena "Marixan" ostatuan eman behar du edo 948 630629 telefonora deitu, apirilaren 18a baino lehen. Autobusa doan da eta Zugarramurdi eta Saratik aterako da.



ARGAZKIA: KORO

Hogeita lau lagun elkartu ziren Atxuriako kaxkoko gosarian.

(Goitiko bordatik). Adin guztietakoak animatu ziren: gazteena 2 urte di-

tuen Unai ginuen eta zaharrena berriz, Joxe 67 urterekin. Guztiek go-

sari goxo-goxo bat atxeman zuten Atxuriako kaxkoan.

ZOANSA
MARKA GUZIEN KONPONKETA
 Bararta, 2 - Alkalaga industrialdea
LESACA (sareta Beratik)
